



ARGIA



PEIO DUFAU
Diputatu abertzalea

**“Gure ideiak
defenditzeko
gogoz naiz”**

36-39. orrialdeak

2.881 | 2024 / 07 / 28 | 4,00 €



**Sionismoaren
kolapsoaz, Ilan
Pappéren analisia**

24 | NAZIOARTEA



**Aldeko jarrerak
sustatzearen
garrantzia**

32 | EUSKARA NAFARROAN



LARRUN #298
**Hautzaroko sexu
erasoen tabuak hausten**

Udan patxadaz gozatzeko

ARGIA Jendeak etxean jasoko du, eskatu beharrik gabe.

Gainerakoei: erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus · (+34) 943 37 15 45

Egin zaitez
ARGIAkoa
uztailaren 21a
baino lehen
eta etxera
bidaliko dizugu

9€



gakoak

 ARGIA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Iritziak

- 19 | ASIER BLAS MENDOZA
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | AHOZTAR ZELAIETA
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | ZIGOR ETXEBURUA

Finkoak

- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
IRANTZU PASTOR
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

42 | KOMUNITATEA: PELLO ZUBIRIA 1980TIK TXIKITIK ERAGITEN

Erretreta hartu du *Zeruko Argiatik* erredakzio honetako kide eta urte askoan lantaldearen buru izan den kazetariak. *Jarraituko du...*

OHARRA: DEKANOA ERRETRETAN, GAINERAKOAK OPORRETAN

Esku artean duzun zenbaki hau da udako etenaren aurretik osatu dugun azkenekoa. Lau asteo oporraldiaren ostean, irailaren 1eko astean jasoko duzu hurrengoa.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

NATOk armak oparituko dizkio bere buruari, eta klima kutsadura denori

Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | G. UGARTEMENDIA

“Jendeak arbola aldatu eta segituan nahi du etekina, eta hori ez dago”

Miel A. Elustondo

24 | NAZIOARTEA | YASMINE KHRIS

Sionismoaren kolapsoa

Ilian Pappé | New Left Review

29 | NAZIOARTEA | SILVINA MOLINA

“Sareak ehuntzea da garrantzitsuena. Lehentasuna orain bizirautea da”

Nerea Menor

32 | EUSKARA | NAFARROA

Jarrera baikorrak areagotzearen beharra

Olaia L. Garaialde

36 | POLITIKA | PEIO DUFAU

“Anti-euskaldun bat hautagai jarrita ezin daitekeela irabazi esplikatu zaie Pariseko buruei”

Jenofa Berhokoirigoin

40 | POLITIKA | JESÚS RODRÍGUEZ

“Zergatik erori da orain auzi osoa, akatsa egin eta hiru urtera?”

Gorka Peñagarikano

48 | KULTURA | FREE JAZZ

Beltzetan beltzena

Julen Azpitarte

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Julen Ugartemendia, Lander Arbelaitz,
Leire Artola, Manex Moreno,
Manex Usarralde, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Olaia L. Garaialde,
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

 Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



Itsasargia

Saype artistaren "Amets distiratsuak" artelana Zurichen. Pertsona migratzailez betetako ontzi txikira begira dagoen neska bat da, eskuetan itsasargia duela. Bizitza hobea baten bila doazen pertsonak itsasoan salbatzeko, bizitza arriskatzen duten emakume-gizonei egindako omenaldia da. Landare-ikatzarekin, klarionarekin, urarekin eta esne-proteinekin eginiko pigmentu biodegradagarriak erabili ditu, eta 4.500 metro koadro hartzen ditu.

 SAYPE  AXIER LOPEZ



MOTZEAN

Gasteiz Antzokia ireki zuten joan den astean, Izaskun Arrue Kulturgunen izenarekin. Ekainean udalarekin 2024ko hitzarmena sinatu zuenetik Lazarraga Kultur Elkarteak lehenbailehen ireki nahi izan du kultur-gunea.

Trafiko eskumen osoa berreskuratuko du Nafarroak 2026ko uztailerako, Gorenaren epaia beteta.

EH Bilduko militanteek Hondarribiko alkateari eskatu diote "Jaizkibel konpainiak bakarrik betetzen duen legea betearazten hasteko, eta Alarde bakarra, guztiona eta publikoa izan dadin bere karguari dagozkion erantzukizun eta baliabide guztiak erabil ditzala".

5.000 lagunentzako zirku erromatar baten aztarnak aurkitu dituzte Iruña-Veleian. Arabako aztarnategi arkeologikoaren ondoan 280 metro luze eta 72 metro zabal dituen egitura ezkututzen da soroen azpian.

Jose Ignacio Munilla gotzainak enegarren aldiz erakutsi du bere homofobia, homosexualitatea "sendatzeko" terapiak defendatuz.

Hogei urteko kartzela zigorra, Aroztegiaren aurkako kanpaldiagatik

 ERREDAKZIOA

Hogei urteko kartzela zigorra eta 56.000 euro eskatu dituzte zazpi baztandarrentzat. "Talde kriminal antolatua izatea" eta "derrigortze eta bortxa delituak egitea" leporatu diete, 2021ean Lekarozen Aroztegiko obrak geldiarazteko egindako kanpaldiaren harira.

Baztango Aroztegia proiektuaren aurka, kanpaldi luzea egin zuten 2021eko udaberrian, tartean obrak aurrera eraman nahi zituzten makinaren aurrean eserialdiak burututa. Xehe kontatu genuen ARGIAN. Orain, desobedientziak borrokatzeko eskubidea kriminalizatu nahi dutela salatu dute auzipetuek, joan den astean emandako prentsurrekoan. "Epaiketa politiko honetan herritarrek beren burua eta lurra defendatzeko duten konpromisoa eta gaitasuna zigortu" nahi dutela argi dute: "Isilarazi nahi gaituzte, eta ez dute lortuko".

Aroztegiko borrokan aritu diren urte hauetan, "sistematikoki jazarpen judicial, polizial eta ekonomikoa pairatu dugu", gaineratu dute, baina honako honetan "marra gorri guztiak" gaingitu dituztela nabarmendu dute: "Orain zaz-

pi laguni tokatu zaigu gustu txarreko zirku honen parte izatea".

KANPALDI DESOBEDIENTEAK

2021eko udaberrian, obrak aurrera eraman nahi zituzten Palacio de Arozteguia SL, TEX eta QUEIPO SL enpresak handik alde egitea lortu zuen mugimendu herritarrek, kanpaldiak antolatuta: "Espulazioaren mamurru beltzak bere makinekin, beraiendako espreski egindako legeak errespetatu gabe eta Baztango herritarren eta tokiko erakundearen erabakien gainera pasatuz, gure lurra xehatzen eta etorri ziren. Etxerat igorri genituen".

"BORROKA EZ DA AKITU"

Borroka hau oraindik ez dela amaitu nabarmendu dute prentsurrekoan, eta UGEPa bertan behera uzteko eskatu diote Nafarroako Gobernuari. Gogorazi diote "ebatsitako lurra berriz nekazari eta Baztango Batzar Nagusiari itzultzearen erantzukizuna berea dela".

Azkenik, "pairatzen dugun erreprezio ekonomikoaren aitzinean" elkartasuna eskatu dute, eta harremanetan jartzeko emaila eman dute: aroztegia_elkartasuna@ni.eus ●



Ilara on



UXUE APAOLAZA LARREA

Ilarei buruzko artikulu bat irakurri nuen duela bizpahiru egun, Guillem Martinezena, eta ez dakit ondo ulertu nuen. Kontatzen zuen etxe azpian ezer berezirik ez zuen izozki denda bat daukala, eta azken aldian ireki orduko izaten duela jendea, bata bestearen atzean ordenatuta, zain, *influencer* esaten zaien horietako batek ez dituen ezaugarri eskusiboak asmatu dizkiolako. Errealitatea hain eramangaitza izanik, nahiago omen dugu gezur baten zain ordenatu. “Milioika pertsona dira milioika ilaratan; horrexegatik dirudite zutabe, zain, hurrengo gezurra noiz iritsiko. Aurrera egiteko agindua”. Susmoa dut tipo horrek ez duela ilararik egiten. Eta artikulua benetako metafora ez zela ilara bera, baizik eta ilarari, etxetik, goitik behera begiratzen dion hori.

Izozki denda horri asmatu diotena gezurra da. Baina El Prado museoa ez da gezurra, ez zentzu horretan. Hor daude koadroak. Hor dago isiltasuna. Hor dago handitasuna. Hor dago paseoaren dibagazioa. Hor dago begiratzen zaituzten hainbeste begi pintatu. Ilara luzeenak museora doan sartzeko orduetan egiten dira.

Ur-parkea, abuztuan, ez da gezurra, umeentzat egun osoan planik gehiago ez pentsatu behar izateko paradisua dira, neuronan pijaman lasai egotekoak. Lehenengo, ordea, ilara autoan, ilara sarreran, ilara, ziur asko, atrakzio bakoitzean.

Benetakoak dira harategia, supermerkatua, zirkua, kontzertua, hegazkina, are herriko plazan Olentzero eta Mari Domingi umeen gutunak jasotzen.

Eskainiko baligute, denek ezabatuko genituzke ilarak gure bizitzatik, eta izorratu egingo genituzke. Eskainiko baligute, gure bizitzatik ezabatuko genituzke guk aukeratutako pertsonekin nahastea eskatzen diguten gauzak. Besteak ez badira gu baino distiratsuagoak, markakoagoak, ospetsuagoak. Baina horiek ez daude ilaran, hegazkinera sartzeko ilararen ondotik pasatzen dira, eta, gero, hotelen bateko leihoan egongo dira, edo etxeokan, ilarak interpretatzen.

Badaude errealitate gordinagoetara daramaten ilarak. Nik aspaldian iltzatuta daramadan ilara bat Madrilan ikusi nuen Aste Santuan eliza baten ondoan: errealitatea karitatezko poltsa bat zen, bokadiloa, jogurta, fruta ale bat. Eraikinari ia buelta ematen zion. Motxila horiak ikusten ziren ilara ziprirtintzen zutenak, Glovo. Zer gezurren zain zeuden. Osakidetzaren larrialdietako itxaron geletan ere ilara desordenatuak egiten ditugu, harategikoa dirudien papertxoak eskutan. Biziraupenaren (edo opiazeoz ondo goxatutako heriotzaren) gezurraren zain.

Klase ertain baxua, langile klasea, turista denean ere, ez da hain inozoa, leihotik begiratzen gaituzun intelektual



hori; ilararen batera animatuko bazina, ikusiko zenuke leihotik baino gehiago. Ilara horiek ez dute gezur bat bilatzen, ilara horiek egiten dituztenen zibilizazio maila adierazten dute (beti dago kolatu nahi duen narzisistaren bat, egia da), ilara egiten dutenek ez dute elkar jaten, elkar jotzen, elkar zapaltzen. Elkarrekin itxoiten dute. Ilara horiek itxaropen kolektiboa dira. Eta ilara horietan asko begiratzen diogu elkarri, laztantzen, laguntzen ere bai (zenbat aldiz salbatu zaitu ezezagun baten adeitasun keinuak?).

Orain artikulugileak ez dit ulertu, agian. Ea zuk? Mimatutako ilarak eta ilarakideak. Abuztu on. ●

Txosnagunea arriskuan, TicketBAI dela medio

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Gasteizko jaiak hasteko aste gutxi falta direla, Gasteizko Txosna Batzordeak urgentziatzeko prentsaurrekoa eman du, salatzen Arabako Foru Aldundiak txosnetan TicketBAI ezartzera derrigortu nahi dituela. "Parekatu egin nahi dituzte txosnak eta irabazi ekonomikoa helburu duen edozein jardura pribatu. Egoera hau aldatu ezean, aurten ezingo dugu txosnarik jarri", adierazi dute.

Gasteizko Txosna Batzordeak larritzat jo du eredu herrikoi, kolektibo eta sozialen borondatezko lana enpresa pribatuekin parekatu nahi izatea. TicketBAI sistema ezartzera derrigortzeak jai herrikoiak "kolokan" jartzea ekar dezakeela azaldu dute.

43 urteko ibilbidea dutela gogoratu dute eta beren guneetan milaka izan direla modu bateko edo besteko lan boluntarioa egin duten pertsonak eta beste milaka, guneko egitarauaz gozatu dutenak. "Hori horrela, ezin dugu ulertu erakunde publikoek txosnen jardunari trabak jartzea, kasu honetan, zerga-normalizazioak eta iruzurraren aurkako lana aitzakia gisa erabilia. Izan ere, jai herrikoiak eta txosnak babestu beharreko jai ereduaren oinarri dira, herriaren gehiengo zabalak partekatzen dituen kultura-balioen transmisore baitira", salatu dute.

Nabarmendu dute ez dutela inolako irabazi asmorik, txosnetan bildutako dirua elkarte eta eragile sozialetara bideratzen baita. "Erakunde publikoei eskatzen diegu arduraz joka dezatela jaiak pribatizatzeko batzuen interesaren aurrean, eta herritik eta herriarretzat sortutako jai parte-hartzaile eta herrikoien eredu hau modu autogestionatuan garatzeko oztoporik ez dezatela jarri".

Gaineratu dute jakitun direla Gasteizko jaietako beste espazio batzuetan ez dutela TicketBAI aplikatzea eskatu eta adierazi dute kezkatzen dituela jai herrikoien eta txosnen aurkako neurri ideologikoa izateak. Aldundiari borondate politikoa eskatu diote, jai herrikoiak ez oztopatzeko eta aterabidea erdiesteko. ●

ANALISIA



Holokausto, apartheid, *nakba*

XABIER LETONA BITERI

Estatu palestinar bat, bi estatu edo batere ez. Horiek dira Palestinako gatazkaz aritzean irudikatzen diren irtenbideetakoak. Egungo Gazak eta Zisjordaniak osa dezakete Palestinako Estatuak; edo izan daitezke Zisjordaniako A eremua bakarrik –Palestinako Agintaritzako kontrolpeko eremua–, lurralde horretako %18ko azalera hartzen duena; edo palestinarrek eta israeldarrak hartuko dituen estatu bakarra. Eta beste hainbat molde ere ehun daitezke, baina joan den astean Israelgo Parlamentuak esan zuen ezetz, palestinarrek ez dutela estatu bat izateko eskubiderik, eta aukerarik ere ez. Errealismo gordina, ez AEBen edo Europar Batasunaren nahaste-borraste konplizea.

Ez da berria, jakina, 1948tik sionismoa lantzen ari den estrategia da, Israelgo gizartean gero eta proiektu handiagoa duena: Eretz Israel edo Israel Handia, Jordan Ibaitik Mediterraneorainoko Estatu Judua, 2018an Knessetak –Israelgo Legebiltzarra– Israelgo Oinarriko Legearen bidez modernizatutako ikuspegia. Eta 2022an eratu zen Benjamin Netanyahuaren koalizio gobernuaren helburu nagusia, egunetik egunera gauzatzen ari dena, bai Gazaren suntsipenarekin, bai Zisjordaniako kolonizazioaren etenbako sakontzearekin.

Urriaren 7tik gaurdaino kontaezinak dira Eretz Israel erraztuko duen *nakba* berri baten alde diputatu, gobernuak edota intelektualen adierazpen argi eta gogorrak. Agian, muturrekoenetakoa Amichai Eliyahu Hondasun eta Jerusalemgo Aferetarako ministroak irratian esandakoa: Gazan bonba nuklearra jaurtitzea aukera moduan ikusten zuen. Avi Dichter Nekazaritza ministroa eta Israelgo zerbitzu sekretuaren buru ohia ere garden mintzatu da: "Gazan *nakba* indarrean jartzen ari gara: Gaza *nakba* 2023. Horrela bukatuko da". Eta nazioarteko komunitatean oraingoz ez da ikusten *nakba* berri hori geldiarazteko inongo asmorik.

Jewish Current hedabidean Rabea Eghbariah palestinar pentsalariak egindako elkarrizketa interesgarrian aipatzen du palestinarrek badituztela sionismoak 1948an erabilitako biolentzia fundazionala deskribatzeko hitzak, horien artean *iqtila* (deserrotzea), *tahjeer* (desplazamendua), edo *tashrid* (kanporatzea), eta horiek guztiak biltzen dituen *nakba* dela. "Holokausto" entzutean nazien Alemania datorkigu burura, eta "apartheid" Hegoafrikarekin lotzen dugu. Bada, Eghbariah-ren esanetan, *nakba* da Israelgo Estatuaren sorreratik palestinarren zapalkuntza prozesua deskribatzen duen hitza, gero eta itzulpen gutxiago behar duena, berez mintzo delako. *Nakba*, sionismoarentzat Eretz Israelerako bidea da, palestinarrentzat Palestinako Herriaren suntsipena. "Eta non ote gaude gaur egun?", galdegiten dio Eghbariha-k bere buruari: "Ez gaituzte suntsitu. Suntsipena eta askapenaren arteko espazio horretan bizi gara". ●

34

pertsona erreskatatu ditu Mediterraneoan Aita Mari salbamendu ontziak, uztailaren 14an. Azaldu dute Siriatic etorritakoak direla gehienak, baina badaudela haien artean Egiptotik, Nigeriatik eta Bangladeshtik etorritakoak ere.

1.300.000

sinadura lortzeko kanpaina abiatu dute Seo/BirdLife GKEak eta Guggenheim Urdaibai Stop plataformak, Urdaibaiko Biosfera Erreserba kontserbatzeko helburuz.

63

urteko laborari bat eta 12 urteko ume bat hil dira uztailaren 15ean, Aiherran (Nafarroa Beherea), traktore istripu baten ondorioz.

“ETAko presoek eragindako kaltea injustua zela aitor dezaten lan egingo du Jaurlaritzak”

MARÍA JESÚS SAN JOSÉ

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen sailburu berria.

2024-07-15



“IRATIKO BASOA BIOSFERAKO ERRESERBA IZENDATZEAK EREMUA ARE BABESTUAGO IZATEA EKARRIKO DU”

CARLOS BUENO

Aezkoako lehendakaria.

EUSKALERRIA IRRATIA (2024-07-15)

“Euskaldun gehiago bada, baina euskaldunak gero eta giro frantsesdunago batean bizi dira”

SÉBASTIEN CASTET

Euskal Konfederazioko zuzendaria

EUSKAL IRRATIAK (2024-07-15)




Arreta hezten



DIANA FRANCO EGUREN

Ez dut oso argi gure bizitzak gidatzeko, banaka, botere nahikoa dugun, baina saiatzen jarraitu behar dugula bai. Taldean gauza asko egin badaitezke ere, egunero gure buruarekin borroka bakarria dugu aurrera egiteko. Gizaki gehienok, bizitza den norabide bakarreko ur korrontearen gainean mantentzen ematen dugu denbora. Mantentze hori, gure, gizakion, zibilizazioan ezagutza metatzen den heinean konplexuagoa egiten dela iruditzen zait, gero eta aldagai gehiago kontuan hartu behar direlako bizitza modu duinean bizitzeko. Baina bada konplexutasuna ulertzen eta nabigatzen dakienik, metatutako ezagutza hori guztia baliatu dezakeenik bizitza hobe baterako bidean; puntu horretara heltzea ez da erraza, norberarengandik hasi eta besteekin eraikitzen joan gaitzake.

Udako hilabeteak opor garaiak dira batzuentzat, beharbada oporraldia txikia da, atsedean hartzeko merezitako tartetxoa. Garai honetan konplexutasuna kudeatzen lagunduko digun jokabide bat geureganatu dezakegu: pantailei ematen diegun arreta heztea. Jokabide aldaketa bat ez da egun batetik bestera ematen, batez ere pantailekin eta digitalizazioarekin, gaur egun gure bizitzetan oso korapilatuta baitaude. Baina pixkanaka-pixkanaka, pantailak bigarren leku batean uzten saia gaitzake, eta beste jarduera batzuk egiteko pausoak eman ditzakegu. Aldaketa hau gauzatzeko jarraitu ohi ditudan estrategiak nahiko begi-bistakoak dira: banaketarena batetik, hau da pantailak lanerako, kudeaketarako eta sorkuntzarako eta jolasa, harremanak eta gozamina gorpuzten saiatuta. Tarteak bilatzearena bestetik: inguruan arreta behar duten pertsonak daudenean, eguneko ordu batzuk ematen dizkiet pantaila bidezko eginbeharrei, ingurukoak nire beharra ez duten orduak. Eta noski, denetan eraginkorrena, jardueraren murriztea da, duzun atsedean tarte txiki hau gozatu, pantailak itzali eta korronteak ez dezala zure opor denbora eraman! ●



Turismoaren norabidea alda

AXIER LOPEZ

Turismo masibo gisa ezagutzen dugunaren ondorio batzuk pairatzen hasiak gara Euskal Herriko zenbait tokitan. Fokua zabaldua, Europako hegoaldeak jarraitzen du izaten iparralde aberatsaren atsedean eta defasarako tokia. Herrialde Katalanetan ondo dakite horrek zer dakarren, batez ere haien uharteetan. Mallorcan biztanleen gehiengoa bilakatu da iparralde globaleko aberatsen zerbitzari prekariora. Euskal herritarrok ere zerbait badakigu horretaz, gurean oso preziatua den helmuga baitira Balearrak.

1920 eta 1930eko hamarkadetan, Balear Uharteak erakargarri paratzen hasi ziren Europako eliteen bidaietarako. Hala ere, mugarrira 1950eko hamarkadatik aurrera gertatu zen: erregimen frankistaren ekonomia politikokoaren proiektu nagusietakoa izan zen, eta uharteetan etorkizuna baldintzatu zuen goitik behera. Artxipelagoa aukeratu zuten baliabide naturalen ustiapenean eta eskulan merkean oinarritutako kapitalismo mota hori garatzeko. Haren ondorioz, "eguzkia eta hondartza" eta "dena barne" ikur zituen monolaborantza turistikoak eratu zen. Haren garrantzietatik etorri dira orain irlara joateko ezagun diren "arrazoiak": auto bat alokatu eta leku xarmagarri berrien bila joatea, meditazio-erretiroak edo Tramuntana mundu osoko txirrindularientzako entrenamendu-leku bihurtzea, adibidez. Hotelen barruan zegoena, irlaren azken txokoraino hedatzen joan da urteen poderioz.

Eredu horren aurkako kritikak gero eta zorrotzagoak dira, baina klase politikoa arreta desbideratzen saiatu da, "mozkorraldirako turismoa" kritikatu eta "kalitatezko turismoaren" alde

eginez. Laburrean esanda, langile-klaseko turista deabrua da, eta erosteko ahalmena duen turista ongizatearen sinonimo, nahiz eta errealtatean lurraldean eta biztanleen egunerokoan askoz eragin negatiboak izan turista burgesaren jardunak. Turismo klasistaren ondorioz, higiezinen agentzietan eta atzerriko partikularrei lurra saltzeko dinamika eroan sartu dira Balearrak. Mallorcan inbertitzaile askok bloke osoak bereganatu ditu, luxuzko etxebizitza bihurtzeko, eta Palmako auzo osoak gentrifikatu dituzte horrela. Etxebizitzen prezioak ezinezkoak dira soldaten batez bestekoa jasotzen duten herritarrentzat; areago, soldata horiek turismoaren mende daudelarik. Balio txikiagoko zonaldeetara kanporatzen ari dira langileak, baina espekulazio-gurpila inoiz gelditzen ez denez, iritsi da unea nora joan ez dagoena. Eta askorentzat aukera bakarria emigratzea da, beren etxetik alde egitea.

Egoera makurraren aitzinean, asteburuan Mallorcako milaka herritarrek 50.000 inguru, antolatzaileen arabera hiriburuko kaleak hartu dituzte euren bizimoduaren turistifikazioaren kontra. "Mallorca ez dago salgai", "Alda dezagun norabidea", "Turismo-monolaborantza gelditu" edo "Zure luxua, gure miseria" dira zabaldu dituzten leloetako batzuk.

Urteak urtera errekor turistikoak gaituzte ondoren, nahikoa dela esan dute. Etengabeko hazkundearen zurrumbilo zoroari amaiera eman nahi diote, eta uhartera doazen turistak kopurua mugatzeko neurri zehatzak eskatu, baita bertako biztanleen bizibaldintzak hobetzeko ere. Dena ez dago gelduta. ●

Dantza utzi du lagunek burla egiten diotelako

 OIER ARAOLAZA / DANTZAN.EUS

6urte ditu. Gustura ari da dantzan. Baina gurasoek jakinarazi digute utzi egingo duela dantza. Arrazoia? Eskolan burla egiten diote lagunek dantzan aritzeagatik. 6 urte. Eta dagoeneko genero estereotipoen indarkeria sufritzen. Nahikoa da! Gurasoak, eskolak, irakasleak, pedagogoak, komunikabideak, ordezkari politikoak, kirol begiraleak eta teknikariak, berdintasun teknika-riak, kazetariak... nora begira gaude?

Dantza emanaldi batean hiruzpalau mutil bazterretik ari dira dantzarien inguruan imintzioka, saltoka, dantzan hasi eta korrika ihes, dantzan direnak zirikatzeten,... Iruditu zait mutil horiei dantza gustatzen zaiela, baina ezin dutela aitortu, sozialki gaizki ikusia dagoelako, eta hor dabilta, barne-borrokan, bihotzak dantzan jartzen dizkie hankak, baina buruak agintzen die hankei ez dutela halakorik egin behar. Dantza irakasleak azaldu dit egoera: "Mutil horietako batzuk dantzan dabilta. Dantza eskoletara etortzen dira, baina ondoren kalean ez dute dantzatu nahi. Lotsa ematen die lagunen aurrean dantzan dabilzala erakustek".

EZ ZAIT GUSTATZEN DANTZA

Dantzan mutil gutxi dagoela esaten didaten bakoitzean asaldatu egiten naiz. "Gutxi? Bakarra ere asko da. Dantzan

Maskulinitate eredu murrizta bere egin ahala dantza ez zaiela gustatu behar ikasten dute mutil-koskorrek

ari den mutil bakoitza milagro bat da. Gizartearen kontra ari da, ez dugu babesten, ez balioesten; kontrara, gutxietsi eta iraindu egiten dira dantzan ari diren mutilak". Irainak jasotzea oso larria da; baina oso gutxi iristen dira irainak jasotzeko puntura. Horra iritsi aurretik uzten diote mutil gehienek dantzatzeari. Berehala ikasten dute mutila izanez gero ez zaiela dantza gustatu behar.

Kokoteraino nago gurasoengandik "nire semeari ez zaio dantza gustatzen" entzuteaz. Ume guztiei gustatzen zaie dantza. GUZ-TI-E-I! DE-NE-I! Gizakiak genetikoki gaude programatuta dantza gustatzeko. Dantza egiteak plus ebolutibo eskaini dio gizakiari, eta beraz, musika entzun orduko plazer sentipenak eragiten dituzten hormonak jariatzen ditu gorputzak: dopamina, serotonina, endorfina... Eta horri erantzunez gorputza dantzan hasten da hormonen jaria-

tzea oraindik gehiago bultzatuz. Sexua eta drogekin parekatzen da musikak eta dantzak gizakiengan duen eragina.

Historiako aro guztietan dantza egin dute gizakiek eta gaur egun munduan diren kultura guztietan ere egiten da dantza. Dantza egitea gizaki espeziearen ezaugarrietako bat da. Ume guztiak dantzaten dira lehen urteetan, eta beraz, bai, mutilak ere dantzaten dira eta mutileri ere gustatzen zaie dantza egitea. Koskortu ahala hasten dira mutilak dantzatik aldentzen. Identitatearen kontzientzia hartzeak hainbat emozio ekartzen dizkio umeari, lotsa, tartean. Maskulinitate eredu murrizta bere egin ahala dantza ez zaiela gustatu behar ikasten dute mutil-koskorrek.

GORPUTZ POLITIKAK NORABIDE BAKARREAN

Genero berdintasunaren aitzakian bultzatzen diren gorputz politikak norabide bakarrekoak dira. Gorputz ariketari dagozkion sustapen politikek emakumeak kirola egitera bultzatzen dituzte. Ez dago ahalegin txikiena ere gizonezkoak dantza egitera bultzatzeko. Kirolaren sustapena hezkuntza eta osasun sistemen parte garrantzitsua da. Dantza, hezkuntzaren eta osasunaren ikuspuntutik edozein kirol praktika bezain onuragarria izan arren, ez da bultzatzen. Zergatik? Ba maskulinitateak ez duelako dantza bere jardueratzat hartzen.

Lotsa eta erridikuluarekin lotzen du dantza maskulinitateak. Gure gorputza da lotsa eragile nagusietakoa eta zer esanik ez gorputza mugimenduan jartzen dugunean. Bai kirolean, bai dantzan, gure gorputza jende aurrean mugimenduan jartzeak autokonfiantza handia eskatzen du. Jarduera fisiko batean trakets moldatuz gero berehala agertzen da lotsa. Kirolean, autoestimuan galera handia izaten dute emakume gehienek eta gizonekiko gutxitasun-komplexua garatzen dute. Kontrara, gizonezko gehienek autoestimua sendotzen doa kirolean emakumeekiko sentitzen duten nagusitasunak lagunduta. ●



NATOK ARMAK OPARITUKO DIZKIO BERE BURUARI, ETA KLIMA KUTSADURA DENORI

Munduko erakunde militar suntsitzaileenak 75 urte bete ditu, eta eztei horiek behar bezala ospatzeko, esan du bere kideek gehiago gastatu beharko dutela armetan. Gainera, urtemugaren goi bileran beste potentzien kontrako gerra hauspotu du NATOK, Txinaren eta Errusiaren kontrako hizkera belizistari indar gehiago emanda. Hori gutxi balitz, txosten batek erakutsi berri du bere gastu militarren gorakadak milioika tona CO2 gehiago isurtzea ekarri duela azken urtean. Zorionak.

 URKO APAOLAZA AVILA

Washingtonen egin du NATOK bere azken goi bilera uztailaren 9tik 11ra, Abrahamen denborakoa dirudien Joe Biden presidente estatubatuarra anfitrioi zuela. Baina ez da edozein bilera izan, munduko erakunde militar handi eta suntsitzaileenaren 75. urtemuga ospatu dute bere 32 estatu kideek. Eta nola ospatu gainera.

Irakurleak nahikoa luke prentsa orokorreko goiburua leitzea konturatzeko Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeak (NATO ingelesezko hizkiz) zer nolako intentzioak dituen mundu mailako eskalada beliko honetan. Edo berdin kontsultatu dezake bere webgunean, *Washington Summit Declaration* (Washingtongo Gailurraren Adierazpena) izenburupean eta 38 puntutan laburbilduta, alferrik galtzekorik ez duen testua.

Komunikatu gogor horretan Txina jarri du jo mugan NATOK, esanez Errusiak Ukrainan daraman gerraren “bideratzaile funtsezkoa” dela. “Uste dut mezua oso indartsua eta argia dela: argi eta garbi ari gara definitzen Txinaren erantzukizuna Errusiaren gerra baimentzerakoan”, adierazi du Jens Stoltenberg erakunde armatuaren idazkari nagusiak. Ipar Atlantikoko Itunak dio “kezkaz” begiratzen diela Pekinen armategi nuklearrei eta bere ustez kontuan hartzekoak diren beste “mehatxu hibridoak, zibernetikoei, espaziokoei eta bestelakoei”. NATOren aburuz, Errusia eta Txina “nazioarteko ordenaren joko-arauak aldatu nahian” dabilta.

Baina Washingtongo goi bilera ez da

hitz-joko belizista antzuetan geratu, Ukrainari dirulaguntza eta arma gehiago ere agindu dizkiete –2022tik urtero 40.000 milioi euro bideratu izan ditu Zelenskiren gobernuak gerran jarraitu dezan–, eta beste promesa bat ere egin diote: Europa ekialdeko herrialde sobietar ohia erakundearen sartzeari “atzeratzea” dela esan dute. Hitz horretan dago NATOK oraingoan emandako urrats arriskutsuaren giltzetako bat –segidan baieztapena leundu arren “baldintzek ahalbidetzen dutenean” esaldia erabilita–, Ukraina NATOren integrazioa beti izan baita marra gorri bat Errusiarentzat.

Armen ekoizpenean eta salmentan gehiago gastatzea da euren plan brillantea. Lehendik ere lerrootan azaldu dugu NATOK bere bazkideei eskatu bezala BPGren %2 gastu militarra bideratzeak ekarriko duen miseria herritarrentzat –besteak beste, murrizketa sozial itzelak–. 2024an Europako herrialdeen eta Kanadaren gastu militarra %18 igo zen, NATOK adierazpenean “pozez” nabarmendu duenez.

Baina zifra hori eskas geratu zaie antza: “Berresten dugu kasu askotan %2ko gastua baino gehiago beharko dela”, dio onarturiko testuak. Erresuma Batuko lehen ministro Keir Stamerrek esan du prest direla defentsarako aurrekontua BPGren %2,5era igotzeko, eta ez dira gutxi pentsatzen dutenak Herbehereetan egingo den hurrengo goi bileran helburu hori nagusituko dela.

NATOK hori guztia egiten du makillaje geruza lodi bat aurpegian jarrita, segurtasunaren eta demokraziaren izenean, faxismoa garaitu ostean sorturiko nazioarteko ordena “defendatzen” ari denaren iruditegia erabilia. Baina NATO sortu baino askoz lehenago ere –seguruenik Bigarren Mundu Gerra hasi zenetik, María José Tiscar historialari galiziarrek *La Excepción Ibérica* liburuan dioen moduan– AEBek mundu bipolar bat bultzatu dute.

Josep Fontana historialari jakintsu irakurri izan diogunez, 1949an George Kennan AEBetako diplomazialariak plan bat proposatu zuen, ikusita NATOren “defentsarako” mekanismoek mundu mailako gatazka ekar zezaketela: sobietarrekin akordioa egin eta Alemania “desarmatu eta neutralizatu” bat sortzea. Baina militar estatubatuarrak antzarak ferratzera bidali zuten, eta geroztik ez da egon hirugarren bideetarako tokirik Lurrean.

MITOAK ETA KONTU-GARBITZEAK
NATOren geroztiko historia, Die Linkeko diputatu alemaniarra den Sevim Dağdelenek kontatu du arrakasta handiko liburu batean, ingelesera itzuli berria: *NATO: A Reckoning with the Atlantic Alliance* (NATO: Atlantikoko Itunarekin kontu-garbitzea).

Dağdelenek *Open Democracy*-ko Amy Goodman kazetari ezagunarekin izandako elkarrizketan aipatzen ditu liburuan idatzitakoak: “NATOren historia ukazioaren historia da eta hiru mito handi ditu. Lehenengoa da defentsarako ituna dela. Gutxienez 1999tik, Yugoslaviako Errepublikak Federala eraso zuenetik, badakigu



JENS STOLTENBERG NATOko idazkari nagusia, ondoan duela Xavier Bettel Luxenburgoko kanpo ministroa. Barreak eta adeitasuna nagusi Washingtongo goi bileran, kanpora begira gerra-mehatxuak eta militarizazioa zabaltzen dituen bitartean.

gerrarako ituna dela”. Afganistango hogeituroko gerra, Iraken kontrako erasoak edo 2011ko Libiaren kontrakoa ere jarri ditu adibidetzat diputatuak.

Beste mito bat datza sinetsarazi nahi izatean NATO “demokrazien kolektibo bat” dela, erregimen autoritarioen kontra borrokan ari dena. Gogoratu besterik ez da egin behar Portugal izan zela bere sortzaileetako bat, Salazarren garaian, Mozambike eta Angolako kontzentrazio esparruetan afrikarrak torturatzen zituen bitartean. “NATOk ez du inoiz arazorik izan diktadore faxistekin”, oroitarazi du Dagdelenek.

Eta azkenik, giza eskubideak babesten dituela dioen mitoa dago. Honetan, estoldetako zabor guztiak ateratzen dituzte egileak: Guantanamo tortura zentroak, Julian Assangeren kontrako prozesua, Irakeko gerra krimenak... AEBetako Brown Unibertsitatearen ikerlan baten arabera,

hogeituro urtetan AEBek eta bere aliatuek hasitako gerren ondorioz 4,5 milioi pertsona hil dira. Ez da atzera begiratu beharrik, ordea. NATOko kideek –AEBak eta Alemania buru– Gazako sarraskia egiteko Israeli emandako laguntza du aipagai diputatu ezkertiarrek: “Gazan 15.000 haur hiltzea ezin da justifikatu autodefentsarako eskubide legitimoarekin”.

233 MILIOI TONA KARBONO, GURETZAT

Bere existentzia zurrizko estrategia barruan, azken urteetan klima larrialdiari aurre egiteko neurriak ere iragarri ditu NATOk, esaterako 2050erako industria militarreko karbono emisio netoak “zero” izatea –Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik 32.000 milioi dolarreko kalte klimatikoa eragin duela bolo-bolo zabaltzen duen bitartean–. Greenpeaceen esa-

netan hipokresia hutsa da NATOrena, guztiz kontraesanean dagoelako gastu militarra igotzeko asmoekin, eta bere jarrerak ez duelako zerikusirik justizia klimatikoarekin.

Izan ere, 2023an NATOren gastu militarrek aurreko urtean baino 31 milioi tona metriko CO2 gehiago isurtzea ekarri zuen. Herbehereetako Transnational Institute erakundeak egin eta Bakearen Ikerketarako Delàs Zentroak argitaraturiko *Climaten in the crosshairs* (Klima jopuntuan) txostenaren arabera, NATOren aliatuek 1,34 bilioi dolar gastatu zituzten iaz armetan, eta ondorioz, denera 233 milioi tona CO2 isuri zuten, fosiletan errege den Qatar bezalako herrialde batek adina –eta ez dakigu zenbatekoa litzatekeen karbono aztarna hori gastu helburuak %2,5era igota–. Bikain, badu kandlei putz egiteko beste motibo bat. ●

Gregorio Ugartemendia

PAGADIEN EGILE



JENDEAK ARBOLA ALDATU ETA SEGITUAN NAHI DU ETEKINA, ETA HORI EZ DAGO



Tolosatik abiatu eta Bedaion gora egin, Menditxiki aldera. Batean Bedaio, bestean Zarate, Gipuzkoako eta Nafarroako muga-mugan gara. Hantxe dira helburu ditugun lursailak, Itxitua eta Erlo, garai batean lahar, pagadi gaur egun: Gregorio Ugartemendia Zubillagaren basoa duzu.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Non da pagadi honen historia?

Orain dela hogeita hamar urteko kontuak dira. Jende guztiak pinua aldatzen zuen hemen, eta anaiak eta biok, elkarri: "Pinua ez, pagoa aldatu behar diagu, bazterrak garbitzen ditik honek eta!". Eta horregatik hasi ginen, batik bat. Hemengo mendiko teknikariak ere horixe esan zigun: "Behean [baserri ondoan] ondo dator pagoa, eta goian ere ondo etorriko da, seguru asko". [Gipuzkoako] Diputazioak mintegia zeukan Urnietan, eta handik ekarri genuen pago-landarea. Belgikakoa omen zen, izatez. Esan zigiten hango klima hemengoa baino hotzagoa dela, eta pago hura hemen ondo egokituko zela.

Horrela hasi zineten...

Lehenengo, mila pago aldatu genituen behean, eta bost urte pasa, eta pagoa ondo etorri zela ikusi genuen. Terreno handiagoan aldatzeko, ordea, proiektua behar zela esan ziguten, basoko ingeniariarena. Eta egin genuen, eta bost mila gehiago aldatu genituen, mendian gorago. Orain ez dago hainbeste, batzuk bota ere egin dira eta. Jendeari galdetzea gustatzen zaio oraindik, ea zergatik ez genuen guk ere beste guztiak bezala egin eta pinua sartu, baina horregatik izan zen: pagoak bazterrak garbitzen zituelako, eta pinuak, berriz, zikindu. Pinuak sasia ekartzen zuen. Ez bazegoen ere, pinuak sasia ekartzen zuen. Baina pagoa

ere zaindu egin behar da, garbitu, eta inausi, adarrak banaka kendu, goikoak ere moztu...

Urteetako lan eta proiektua.

Bai. Anaiak eta biok halaxe esan genion elkarri: "Pagoa aldatu behar diagu! Ondorengoek ikusiko ditek zer egin!"... Pagadi hau baino lehen ere gure etxean pagoa sartu izan zuten. Ez zen, hortaz, gure burutazioa izan bakarrik. Lehenagotik ere bazetorren gogo hori. Pagoa aldatzea gauza handia da beti, lurrar garbitzen du, zikinik etortzen ez du uzten! Laharra-eta asko izaten zen hemen. Pagorik gabe lahardia litzateke paraje hau.



Gregorio Ugartemendia Zubillaga

TOLOSA, 1935



Baserrian jaioa, menditik mundura egin zuen, lantegira, baina jaiote-xtea sekula zeharo utzi gabe. Duela hogeita hamar urte, berriz, milaka pago aldatu zituen amaren baserriaren mendi-lurretan, Bedaion. Lahardi zena pagadi ikusgarri da gaur egun, Gipuzkoak eta Nafarroak bat egiten duten tokietako batean. Monumenturik ederrena dugu, naturaren kontrako erasoak etenik ez duten garaian. Ikusgai da Interneten, ondoko helbidean: <https://labur.eus/pT0GH>

Ez zineten, hala ere, beste gabe hasi pagoa aldatzen. Teknikariaren onespena behar izan zenuten.

Hark esan zigun: "Goian ondo etorriko da pagoa. Gainera, kare-harria dago hemen, eta kare-harrian ondo etortzen da pagoa". Eta esan dizut, pagoak ondo garbitzen du hondoa. Haritza ere esaten du jendeak, baina haritzak ere ez du hondoa zeharo garbitzen. Ordu arte, berriz, itxitua zen terreno hau, eta ganaduak ibiltzen ziren bertan. Gaur ere ibiltzen dira pagadian, baina pagadi barruko bidean.

Egun batetik bestera ikusi nahi izaten dugu fruitua...

Horixe dago, bada! Horixe dago! Guk, berriz, pagoa aldatu genuen ondorengoentzat, haiek ere zerbait egin dezaten. 50 bat urte-edo behar ditu pagoak sendotzeko, eta jendeak, berriz, ez dauka pazientziarik: arbola aldatu eta segituan nahi du etekina, eta hori ez dago. Gure esku ez, behintzat. Jendeak nahi du segituan egin eta segituan jaso, eta arbolekin, behintzat, gaizki! Hemengo pagoak oraindik fresko daude, entresaka ere oraintxe egin zaie.

Ondorengoak aipatu dituzenez gero, haiek zure gogorik badute?

Gure seme-alabak ere ibilita daude baso honetan, bai; semea, batez ere.



Basarriekin batera, ezagutu ditugu Uztapide, Xalbador, Garmendia... Gehiena Uztapide gustatzen zitzaidan; umila zen. Basarrik, berriz, bazuen halako tentetasun bat"

Hasieran, pago-landareak txikiak zirenean-eta, inguru guztia garbitu behar izaten zen. Belarrez eta laharrez josita egoten zen... "Orain ere bazoaz Bedaiora!", esaten zidaten, eta ni, berriz, hementxe gozatzen nintzen, pagoak garbitzen-eta! Oporretan semea etortzen zitzaidan laguntzera. Gure semea baserrian bizi da orain, gogoko du basoa, eta han ere zaintzen ditu arbolak. Eta alabak ere basoaren kezka badu, edo lurrarena, behintzat, baratzean ere hasita dago eta.

Lehen larrea zen Menditxikiko magal hau. Orain, aldiz, sekulako pagadia. Zer iruditzen zaizu?

Gauza handia da, niretzat, pagadia. Bai hau, bai Basilunbekoa, paraje hartan beste pagadi bat dugu eta. Hura ez dizut erakutsi... Gipuzkoan eta Bizkaian pinu beltza ikusten da asko, baina guk ez genuen hori nahi. Pagoa aldatu genuen, eta betikoa: "Aldatu bai, baina noiz etorriko da arbola?". Berrogeita hamar urte behar dituela esaten da, eta guk suertea izan dugu, basoa ezagutu egin dugu eta. Horixe da poza. Orain, berriz, klima ere aldatzen ari dela esaten dute, eta ez dakit zertan geldituko den kontu hori.

Bedaion gabiltza, zuk egindako basoan, baina zu ez zara hemen jaioa...

Ez naiz Bedaion jaioa, ez. Ama nuen





nik hemengoa, Gurbilaundi baserrikoa. Sei bizitza zituen baserriak. Bertan sei familia bizi zirela esan nahi dut, alegia. Ama hemendik Tolosara joan zen, ordea, Luzuriagara ezkondu zen, gure aitaren baserrira, San Esteban auzoan, eta hantxe jaio ginen gu. Ni, hasteko, 1935ean, eta bi urte ez nituela gerra hasiko zen. Ez naiz batere gogoratzen, ez bada osaba gerratik etorri zela. Anjel zuen izena, gure aitaren anaia. Zazpi senide izan ginen.

Eskolarik bazen?

Bai, eta eskolapioetara joan ginen, baina bi denboraldi osorik ez genituen egin. Besamotz bat izan genuen maisu. Beruetekoa zen, euskalduna garai haietan. Eskolara joan ginen, baina ez genuen asko ikasi, ze Gurbilaundin osaba-izebek mutila behar zuten lanerako, eta amaren baserrira bidali ninduten. 14 urte nituela

hasi nintzen Gurbilaundira etortzen, udan. Haiiek seme bakarra zuten, baina zahartzen ari zen hura ere, eta laguntzera etortzen hasi nintzen. Negu partean etxean [Luzuriaga] izaten nintzen. Lana han ere! Kar, kar... Udan Gurbilaundin, neguan Luzuriagan, baina 15 urterekin lantokian hasi nintzen, torlojuetan. Gero, mekaniko sartu nintzen, mantenu-lanean.

“50 bat urte-edo behar ditu pagoak sendotzeko, eta jendeak, berriz, arbola aldatu eta segituan nahi du etekina, eta hori ez dago”

Eta baserrian ez baina kalean bizi izan zara aspaldi. Erraz etsi zenuen kaleko zementu eta asfaltotan?

Ezkondu ginenean, Letxu kalean jarri ginen bizitzen. Etxetik lantokira, eta lantokitik etxera, baina egunero joaten nintzen baserrira! Han nintzen ni arratsaldero. Andreak lan egiten zuen, eta haurrak hartu eta Luzuriagara joaten nintzen, baserrira. Gurasoak ere han genituen, eta han arnasa hartzen

nuen. Eta orain, kalean bizita ere, ahal baldin badugu andrea eta biok egunero joaten gara baserrira. Hantxe bizi dugu semea. Ni pixka bat kaletartu egin nintzen, eta andrea, aldiz, pixka bat baserritartu.

Mendian gora eta behera ibili gara, pagadian barrena, baina arraunlari ere jardun zenuela salatu didate...

Hori ere esan dizute!? Kar, kar... Gure garaian, Tolosan batelak izaten ziren, eta sanjuanetan-eta auzoetakoak ateratzen ginen: Olarrain, Amarotz, Kabila... ziren taldeak. Ni Olarrainekin ateratzen nintzen. Gero, Oriotik patroia etortzen hasi zen, Klaudio Etxeberria, gu ikustera, eta, hurrena, trainerua osatu eta itsasora hasi ginen, Tolosaren ize-nean. Orion entrenatzen genuen. Baina orain bezalako entrenatzailerik ez zen orduan. Oriora joanez gero, segituan hasten ziren akatsak ateratzen. “Honek gerria gutxi botatzen dik!”, eta hau eta hura, segituan hasten ziren.



JOSÉ RAMÓN ZUBILLAGA

“Halako batean, lehen esandako bi gizon haiek hasi ziren kontatzen: ‘Bat, Bi, Hiru ... Rau!!!’ Halaxe, han zeuden gizon guziak hasi ziren lasterka igotzen Eliz-etxe inguruko aldatatxo hura, eta etxe inguruko langa hartatik gu egon ginen begira gure aita Azkarate aldera ezkutatu arteraino. Eta bere atzetik askok jarraitu zioten. Hantxe bertan itxoin genuen, gure aita Azkaratetik itzuli arte. Halako batean agertu zen, Basilunbe aldeko José Mielen barrutian, eta berehalaxe gure aita iritsi zen, plazako pareta ondoko mahaia ukiturik. Apustua jokatu zen jai hartan, anaia Lontxo eta nik alkandora berria jantzi genuen”. [Lardasketa (parrez ta negarrez Bedayo'tar batek Argentina'n idatzia)].

Azken hitza ISTORIOA

“Uste nuen argazkiak arbolei ateratzera etorriko zinela, baina, ikusten denez, oker nengoen. Egia da arbola zutik dagoela, baina istoriorik ez duela kontatzen. Horretarako ahalmenik ez du arbolak. Istorioa, nik”.



Banderarik irabazi zenuen...

Oriorekin! Klaudio Etxeberria, Batista eta Antonio Oviden, Tiburtzio... Oraindik ere biltzen gara. Urtean behin-edo bazkaria egiten dugu. Ni Oriorekin atera nintzen txapelketan, bi urtean, 1963an eta 1964an, eta azken horretan atera genuen bandera, Bermeon. Egun hartan, itsasoan arraunean ari ginela, aurretik ura sartzen hasi zitzaigun, eta aurretik atzera pasatu zen arraunlaria; Kaiku Ttikia zen hura. Tolosarekin hasi nintzen traineruetan, gero Ibarra, Lasarte-Michelin eta Oriorekin ere ibili nintzen. Orduan Hondarribia zen gure kontrario handiena.

Bizia fabrikari lan eginagatik ere, basoa egin duzu, arraunlari azkarra izan zinen, bertozalea ere ez txikia...

Hori ere bai?! Auspoa bilduma gehiena daukagu etxean, bai. Eta zuen ARGIA ere mordo. Etxean hartzen dugu aspaldi. Auspoako liburuetan arraunlarien bertsoak ere badira... Bertsoetako afizioa izan dugu, eta buruz ere ikasi ditugu

batzuk. Garai batean, larunbatetan azoka izaten zen Tolosan, eta saltzaileak etortzen ziren bertsopaperak hartuta, eta kantatzen zituzten. Aita zena erdi bertsolaria izan zen, eta erosten zituen bertsopaperak, eta kantatzen genituen etxean. Eta, gero, ezagutu ere egin ditugu bertsolariak.

Zein eta zein, adibidez?

Basarri-eta. Onentsuena bera zela esaten zuten. Gure anaiak ere huraxe zuen gogoko. Basarriekin batera, ezagutu ditugu Uztapide, Xalbador, Garmendia... Niri gehiena Uztapide gustatzen zitzaidan. Umila zen Uztapide. Basarrik, berriz, bazuen halako tentetasun bat, eta niri pertsona harroak ez zaizkit gustatzen, horien kontrarioa izan naiz beti. Gure osaba batek ere idatzi zuen bertso liburua Auspoan. Jose Ramón Zubillaga zen, eta bildumako lehen liburuetakoa izango da! [Lardasketa (parrez ta negarrez Bedayo'tar batek Argentina'n idatzia), Auspoa, 1964]. Eta zuk, hartzen al duzu Auspoa? ●



SANROKEAK 2024 LAUDIO JAIETAN

ABUZTUAK 15, 16, 17, 21, 22, 23, 24 ETA 25





Trump presidenteordea eta Putin ukrainar presidentea

Joe Bidenen narriadura kognitiboaren eztabaidak bi urte inguru ditu. Batzuetan portaera bitxia zuen, beste batzuetan ez zitzaion ondo ulertzen edo egiak ez ziren gauzak esaten zituen, semea Iraken hil zitzaiola, adibidez. Halere, establishment liberalak bere egoera kognitiboari buruzko edozein zalantza propaganda errusiartzat edo konspirazio ultraeskuindartzat hartzen zuen.

Ekaineko G7aren gailurrean Biden galduta agertu zenean, Egiaren Ministerio-ko egiaztapen-agentziak bere defentsan aritu ziren lotsa barik. Bi aste geroago, presidentetzarako hauteskunde eztabaidan, Bidenek argi erakutsi zuen osasun mental arazoak dituela. Jarraian, azken bi urteetan Bidenen narriadura kognitiboa adierazten zuen oro Kremlinako edo eskuin muturreko propagandista gisa izendatu zuten berberak, hauteskunde presidentzialetarako hautagai demokrata aldatzeko premia adierazi zuten; *New York Times*-ek berak editorialera eraman zuen eskaera. Hortik aurrera, badakigu Bidenek, edo, hobeto esanda, maneiatzen dutenek, uko egin diotela hauteskunde lasterketa uzteari; nahiz eta behin eta berriz titularrak ematen jarraitu duen, besteak beste, Ukrainako presidenteari Putin deituta edo AEBetako presidenteari Trump.

Liberal eta aurrerakoi askoren tresna eskuin muturraren aurka borrokatzeko da haien gezurrak eta konspirazioak salatzea. “Antisistemen” kontakizuna desmuntatzeko establishmentak ahal

Patriarkatuaz,
kapitalismoaz,
inperialismoaz eta
politika publikoez
hitz egin ezean,
borroka politikoa
konspirazioen arteko
lehia bilakatu daiteke

duenean datu eta ustezko ebidentzia enpirikoak erabiltzen ditu, izan ere, atsegina da pentsatzea egia zure alde dagoela eta gauzak ondo ulertzen ez dituzten eta konspirazioen tentazioan erortzen diren pertsona arrunten irrazionaltasunari aurre egiten diozula. Halere, hori ipuin bat besterik ez da, eskuin erradikalak ez baitu gezurraren eta konspirazio teorian monopolioa. Establishment liberalak ere erruz erabiltzen ditu: errusiarrek munduko hauteskunde ia guztietako emaitzetan esku hartzen dute, Moskuk Europako kontinente osoa kontrolatzeko planak ditu, errusiarrek beraien kontrolpeko lurraldeak bonbardatzea atsegin dute, baita beraien esku dauden zentral nuklearrak ere. Are gehiago, eslaviartutako tartariar horiek beraien Nord Stream I



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

eta II gasbideak bezalako azpiegiturak zartarazteko zaletasuna dute.

Boteretik bultzatzen diren gezurrak, manipulazioak eta konspirazioak ez dituzte horrela identifikatzen herritar gehienek. Gauzak, baina, aldatzen ari dira, gero eta biztanle gehiago sistemarekin haserre daudelako eta apurtzailatzat hartzen dituzten aukeren bidez adierazi nahi dutelako amorrua. Boteretik datozen gezur, manipulazio eta konspirazio guztiei gero eta arreta handiagoa jarriko diete, eta aldiz, salbatzaile bezala ikusten dituzten ustezko “antisistemenak” ez dituzte ikusiko edo garrantzia kenduko diete.

Trumpistek Bidenen osasun mentala- ren egoera ezkutatzeko hedabideek egin dutena ikusi dute eta, orain, arrazoi enpirikoa defendatzen dutenen arteko batzuk (sic) Trumpen autoatentatuaren ideia elikatzen ari dira. Konspirazionista liberal horiek kontaktzen digutenez, Trump prest zegoen bere bizitza arriskuan jartzeko espazioaren/denboraren kontrolaezintasunetik ausaz hil zezakeen bala batekin. Noiz eta inkesta guztiek gehiengoa ematen zioten unean. Hor dago arazoa, egun eskuin muturraren aurka ere populismo asko egiten dela. Demokratik vs. autoritarioak joko horretan, *demokrata* hitzak ezer gutxi adierazten du ez bada eskuin muturraren aurkakoa. Izan ere, patriarkatuaz, kapitalismoaz, inperialismoaz eta politika publikoez hitz egin ezean, borroka politikoa konspirazioen arteko lehia bilakatu daiteke. ●

Hezkuntza sailburuari gutun irekia I




TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA

Pedrosa andere agurgarria: Zorionak, Hezkuntza sailburu izendatu zaituztelako. Ez da ardur berria zure gainean izango duzuna aurrerantzean. Ederto ezagutu behar duzu Hezkuntza Saila, lau urte sailburuorde eman ostean. Ikasturtea bukatuta, kontu batzuk gogoratu nahi nizkizuke (udan meditatzeke, nahiko bazenu). Badakit oso ikuspegi bestelakoak ditugula heziketaz, eta aginte ahalmenari dagokionez zer esanik ez, irakasle hutsa naiz ni eta zu Jaurlearitzako sailburua, ez gutxiago. Baina arrazoiaren erabilera publikoa sus-tatu behar dugula esatean ziur nago bat gatzela biok. Lotsa apur bat ematen dit gauza batzuk esan behar izateak, baina tira, esateko beharra dut.

Ondo dakizunez, irakasle lanaren kalitatea behera egiten ari da azken urteotan, gure lan-karga etengabe handitzen ari delako. Lan-kargaren handitze horrek jatorri asko ditu, eta xehetasun txiki askotan islatzen da. Hain zuzen, txikiak izateagatik hasieran oharkabean pasatzen dira, baina metatzen doaz, harrea-aleak balira bezala, eta azkenean mendiak eratzen dituzte. Ikerketa sakon bat egin beharko litzateke lanaren hazkunde hori kuantifikatzeko, eta zehazteko egin behar dugunari gehitzen zaizkion eskakizun berri horietatik zeintzuk ez duten gure lana hobetzen, baizik eta okertzen.

Oinarri material oso eskasa duen digitalizazio azeleratua (ekipo informatikoei mantentze-lan egokiak ez zaizkie-



PAULA ESTÉVEZ

lako egiten, adibidez) kezka eta estres iturri etengabea da, askotan denbora asko galtzea eta atazak betiketzea eragiten baitu.

Irakasleok izapide administratiboe-tarako eta gure lanaren alderdi burokratikorako (notak jartzea, hutsegiteak kontrolatzea, familiekin komunikatzea, eguneroko gorabeherak erregistratzea) erabiltzen ditugun atari eta programa informatikoak eskasak dira oso, eta ez daude egokitu ikastetxeetako beharretara. Horrek ekartzen du minutu gutxitan burutu beharko liratekeen atazak mugarik gabe atzeratzea. Adibide pare bat:

Irakasleak ikasle baten amaren komunikazioa jaso dezake. Ama horrek bere semeari edo alabari buruz hitz egin dezake ponte-izenarekin, lehen abizenik gabe eta zein taldetan dagoen zehaztu gabe. Kontuan izanik irakasgaiaren arabera irakasle batek 150-200 ikas-

le izan ditzakeela, gauzak zaildu egiten dira. Irtenbidea ez da gurasoei irakastea guregana jotzen ikaslea identifikatzeko behar ditugun datuak emanez. Akatsa programa informatikoan bertan dago, guraso batek gurekin komunikatzeko derrigorrezko eremu batzuk eduki beharko litzuke (bete ezean ezin izango luke komunikazioa bidali). Beste bat: ikasle bat bertaratu ez dela zehazteko, hoguei klik inguru egin behar ditugu pantailara iristeko; bidean jazo ohi diren gorabeherak kontuan hartuta, falta bat erregistratzea bezain erraza den egintza batek 10 minutuko atzerapena ekarri ahal du. Bi adibide baizik ez dira beste askoren artean. Bereziki kezka-garria da, Eusko Jaurlaritzak sektoreko multinazional ezagun batekin *Workspace for Education* erabiltzeko akordioa sinatu zuela gogoratzen badugu, dirutza publikoa sartuta.

Azken legearen arabeko programazioak eta ebaluazioak (kritikatu litezkeen beste aldeak alboratuta) aurrekaririk gabeko lan burokratikoko orduak gehitzea eragiten ari dira. Askotan, esan bezala, lan antzua, irakaskuntzaren kalitatea hobetzen ez duena.

Irakaskuntza publikoko irakasle askok eskertuko genizuke gai horiek zure taldearekin aztertu eta konponbideak bilatzea. Baina, zoritxarrez, gure arazo bakarrak ez direnez, hurrengo gutun batean atseginez helaraziko dizkizut beste horrenbeste.

Oporraldia baduzu, asko disfrutatu. Adeitasunez, T. M. ●

JELkumeak



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Joseba Diez Antxustegi EAJk Eusko Legebiltzarrean duen bozeramaile berriaren iritiz, Imanol Pradales lehendakariak "esperientzia handiko emakumez eta gizonez osatutako gobernu osatu du, sektore profesionaletan errespetatuak eta Euskadirekin konpromisoa hartu dutenak". 2015. urteko eslogan bat errepikatu du, Andoni Ortuzar alderdiko presidentek adierazi baitzuen ate birakari jelkideek "zuzen funtzionatzen dutela, norabide egokian"; izan ere, "lehenik eta behin, jendeak profil profesionala du, gaitasun egiaztatua du, bere lanbidean eta zeregin profesionaletan bere balioa erakusten du, eta, gero, pertsona horietako askok konpromiso publiko eta instituzionalak hartu dituzte".

Ortuzarren estrategia 2013ko udal hauteskundeetan hasi zen, "Jóvenes Burukides Bizkainos" (JoBuBi) taldeak bultzatuta EAJren udal kudeaketaren inguruko koadroak berritzen saiatzen ari zirenean. Alderdiko "JaBuGo"-ek eta "Michelines"-ek urte gehiegi zeramatza ten administrazio publikoarekin lotuta, eta, beraz, enpresa pribatuetan karrerak zituzten kudeatzaile berrien irudia saldu nahi izan zen, nahiz eta gehienak administrazio publikoko kontratistak ziren.

Azken hauteskundeetan EAJk izandako emaitza negargarriak direla eta, eta

azken hautagaitzak feminismoz moztrotuz espero ziren emaitzak lortu gabe, alderdiak presaka jo du promesa gazteen entxufismora. Baina jeltzale asko jada nazkatuta daude Andoni Ortuzar JoBuBien liderraren autokritika faltaz, Arratiako klanaren apoltronamenduaz ere bai (Aitor Esteban eta Itxaso Atutxa), eta are gehiago alderdiko azken JaBuGo batzuk birkokatze moduz (Josu Erkoreka eta Iñigo Iturrate).

Alde batetik, Michelinen birkokatze horiei dagokienez, Ager Izagirre Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako diputatuak uste du kargu publikoak izendatzerakoan "ideologia kontuan hartzen dela" eta "konfiantzazkoak" behar dutela izan. Bestalde, EAJtik banandutako alderdiak, Eusko Alkartasunak, EAJren eremuko gazte-elkarteetan jarri du arreta. Elkarte horien finantzaketa, dirulaguntzen eta kontratu publikoen bidez, Kontuen Auzitegiaren lupatik kanpo dago, eta elkarte horietako militante gazteenak kargu publiko bilakatzen ari dira.

Kontratazio publikoaren arloan, badi-rudi ezer ez dela aldatuko. Pribatizatutako zerbitzu publikoen lizitazioetan parte hartzeko enpresa pribatuak gonbidatzeko orduan, Itxaso Atutxaren kontsigna argia da: "Alderdiaren konfiantzazko hiru enpresa izan behar dira". ●

Estres test



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Laugarrenez altxatu da eguzkia Baionako besten eremu setiatuan eta uste dut, septentrioko Euskal Herri honetan, hatsa hobekiago hartzen dugula, batez ere gure hiru diputatuak Fronte Herritar Berrikoak direlako eta olde beltz-kakia hirugarren postura zokoratu dugulako. Bi gauza, halere: 1. Mamua ez dabil urrun, edonoiz irents eta zirtzika gaitzake; 2. Parisera igortzen ditugun diputatuek, gure zaharrek erraten zuten legez, ez gaitzabela ahantz, trena Akizera heldu orduko. Bozka biharamunak batzuetan frustranteak dira, emozionalki bederen.

Hilabete oso bat iragan dugu antsiar loturik. Senar edo bikote-kide bortitzaren antzera, Macron presidente perbertsonarzisioak bere herritarrei estres test erreal bat jasanarazi die, gorrotoaren alderdiari kontzienteki ateak zabalduz. Oraino ere, gutun bidez, hiritarrei sine-tsarazi nahi die deus ez dela aldatu, ez di-tuela hauteskundeak nehork irabazi, ez behintzat ezkerrek, eta eskuinekoek behar luketela gobernu osatu, beraien artean, 1958ko Konstituzioaren erregelak ukatuz.

Botere zerbait banu, nik, Marine Ton-delier ekologista jarriko nuke lehen ministro. ●

Ez da gelako elefante bakarra



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
EUSKALTZALEA

Hizpidea jarri zuen Pello Salaburuk sare sozialetan, aipatuta hemendik hamabost urtera etorkinen pisua Bizkaian biderkatu egingo zela, biztanle guztien %22 izateraino, eta hori badela “zinez euskararen mehatxua”. Jakina, horrela botata, beste zehaztasunik gabe, azkar sutu ziren bazterrak (artikulu idazterako, 76.100 ikustaldi), pilatu ziren erantzunak, aldekoak (gutxi) eta aurkakoak (ugari), baita irainen batzuk ere; neronek ere heldu nion amuari. Salaburuk eta aldekoek aipatu zuten ezkerrek gai horri iskin egiten diola, baina elefantea gela barruan dagoela. Litekeena da, baina kontua da etorkinena ez dela euskararen gelan dagoen elefante bakarra.

Hasteko eta behin, eta barka jakinak diren kontuak birgogoratzeagatik, gaztelania da bizitza sozialean ezarritako hizkuntza hegemonikoa; legez eta indarrez, inposatuta. Etorkina berehala ohartzten da piperpoto elefantearekin, harrerako lurraldean balio duen eta beharrezkoa duen hizkuntza bakarra gaztelania baita (*idem* frantsesa eta trikoleturra).

Etorkina berehala
ohartzten da piperpoto
elefantearekin,
harrerako lurraldean
balio duen eta
beharrezkoa duen
hizkuntza bakarra
gaztelania baita

Edonola, askok oroitarazi genion etorkin berri ugari saiatzen dela euskara ikasten (Jaurlaritza berriko sailburu batzuk ez bezala), baina oraindik ordaindu beharrak ez duela eskuragarri egiten. Ikastetxeetan ere lan handia egiten da, baina sosa ugari behar da euskararen ezagutza eta erabilera orokortzeko. Hain zuzen ere, erabateko ofizialtasunik ez izateak, mendeko hizkuntza politikak

garatu izanak, euskara ikasteko ordaindu beharrak, hezkuntza sistemak ez euskalduntzeak edota oldarraldi judizialek eragin dute biztanleen gehiengoak bere herriko hizkuntza oraindik ez ezagutzea, eta euskarak bigarren mailako estatusa izatea, 40 urte igarota ere. Talkak eta gabeziak baziren azken boladako etorkinak etorri aurretik ere, eta elefante autonomiko itxura zuten.

Esanguratsua da eztabaidan parte izan ginenok esan gabe ulertu genuela ez zela etorkin dirudenez ari. Bada, Katixa Agirre bakarrik ohartu zen kontraesan horrekin, eta alderdi hori ez da txori-kaka, etxebizitza espekulazioak, turismoak edo kultur eta ekonomia globalizazioak erabateko inpaktua dutelako hizkuntza gutxituetan (ikus “Donostian ezin badugu euskaraz bizi, non?”, EHE; “*La massificació turística és espanyolització*”, Gironako CUP; edota Eragin Linguistikokoaren Ebaluazioa). Erne, elefante kapitalistarekin tupust egin dugu eta!

Euskararen gelan elefante mordoxka dago, eta orroka ari dira. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL · 943 37 11 50 · www.atxegajauregia.com



ARGIA

BABESTEKO

ARRAZOI

1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langleiona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdiren.

2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

3. HEDABIDE DIGITALA ETA DADEREKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIAN jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugariarekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

TXIKITIK ERAGITEN argia.eus/eginargiako



Sionismoaren kolapsoa

Hamasen urriaren 7ko erasoaren erakina zahar bat astindu duen lurrikararekin konpara daiteke. Arrakalak agertzen hasiak ziren, baina orain begi-bistan daude, oinarrietaraino.

 ILAN PAPPÉ



Artikulu hau *New Left Review* aldizkarian argitaratua da, eta beren baimenarekin euskaraz eskaintzen dugu.

120 urte baino gehiago pasa dira Ekialde Hurbileko herrialde arabiar musulman batean Estatu judua inposatzeko ideia sortu zenetik. Lortuko al du Palestinako proiektu sionistak hondamendia ekiditea? Historiak erakutsi digu faktore ugari jar dezaketela estatu bat kolokan. Izan daiteke inguruko herrialdeen etengabeko erasoen edo gerra zibil kronikoaren emaitza. Izan daiteke erakunde publikoak amiltzearen ondorio, herritarrei zerbitzuak emateko gaitasuna galdu dutelako. Askotan desintegrazio prozesu geldoa hasten da, abiada hartzen du, eta gero, denbora gutxian, amildu egiten dira lehen sendo eta irmoak ziruditen egiturak.

Zailena lehenengo adierazleak antzematea da. Israelgo Estatuaren kasuan inoiz baino zantzu argiagoak daudela argudiatuko dut hemen. Prozesu historiko baten lekuko izaten ari gara –edo, zehatzago, prozesu baten hasieraren lekuko–, eta ziurrenik sionismoaren gainbeherarekin amaituko da prozesua. Eta, nire diagnostikoa zuzena bada, bereziki arriskutsua izango da sortzen ari den abagunea. Izan ere, behin Israel konturatzen denean krisiaren tamainaz, indar basati eta desinhibitua askatuko du krisiari eusten saiatzeko, Hegoafrikako apartheid erregimenak bere azken egunetan egin zuen bezala.

- 1 -

Gizarte judu israeldarraren apurketa da lehen adierazlea. Gaur egun bi bando daude, arerioak elkarren artean, eta ez dira gai lurralde amankomunik aurkitzeko. Judaismoa nazionalismo gisa ezberdin definitzen dute eta hor dago hausturaren jatorria. Israelgo identitate juduaren inguruan teorikoki eztabaidatu dute bando erlijiosoak eta laikoak. Baina orain esfera publikoaren eta estatuaren izaera bera daude lehian. Borroka hori ez da soilik komunikabideetan gertatzen, kaleetan ere bai.

Bandoetako bati “Israelgo Estatu” deituko diogu. Judu europarrek eta haien ondorengoek osatzen dute, laikoagoak, liberalagoak eta, gehienbat –nahiz eta ez beti– klase ertainekoak. Erabakigarriak izan ziren 1948an estatua sortzerako orduan eta hegemonikoak izan ziren joan den mendearen amaierara arte. Ez okertu, haiek “balio demokratiko liberalak” defendatzeak ez du eraginik Jordan ibaitik Mediterraneoraino palestinar guztiei inposatzen zaien apartheid sisteman. Beren oinarritzko nahia herritar juduak gizarte demokratiko eta pluralista batean bizitzea da, zeinean arabiarrek baztertuta egongo diren.

Beste bandoa “Judeako Estatu” deituko dugu eta Zisjordania okupatuko kolonoen artean garatu zen. Geroz eta

babes handiagoa du Israelen, eta hau izan zen Netanyahu garaipena bermatu zion oinarri soziala 2022ko azaroko hauteskundeetan. Esponentzialki hazten ari da bando honek armadako goi-mailetan eta Israelgo segurtasun zerbitzuetan daukan eragina. Judeako Estatuak Israel teokrazia bilakatzea nahi du, Palestina historiko osoan zehar hedatuta. Hori lortzeko, prest daude palestinarren kopurua minimora murrizteko eta al-Aqsa dagoen lekuan Hirugarren Tenplu bat eraikitzea aurreikusten dute. Bando honetako kideek uste dute, Bibliako Erreinuen urrezko garaia berriroko dutela horrela. Haien zat, misio horri uko egiten dioten judu laikoak palestinarrek bezain heretikoak dira.

Bi bandoak enfrontamendu bortitzak izaten hasiak ziren urriaren 7a baino lehen. Asaltoaren osteko lehen asteetan, irudi zuen haien arteko ezberdintasunak alde batera utzi zituztela, etsai komunaren aurrean. Baina ilusio hutsa zen hori. Kale borroka berpiztu egin dira, eta zaila da ikustea nola adiskidetu daitezkeen berriz ere. Espero zitekeena ari da gertatzen, gure begien aurrean. Urritik hona herrialdea utzi dute milioi erdi israeldar baino gehiagok, “Israelgo Estatuaren” aldekoak. Judeako Estatu Israel irensten ari da. Mundu arabiarrek ez du proiektu politiko hau onartuko, eta agian munduak orokorrean ere ez, epe luzean.

Gazako atxilotuak masiboki
torturatzeko ari direla salatzen ari
dira Palestinako eta nazioarteko
giza eskubideen aldeko elkarteak.

MOTI MILROD (AP)





AEBetako juduen komunitatea paper garrantzitsua jokatzen ari da Palestinaren aldeko mugimenduan.

- 2 -

Bigarren adierazlea *Israelgo krisi ekonomikoa* da. Etengabeko gatazka armatuetan egonda, ez dirudi klase politikoak inongo planik daukanik finantza publikoak orekatzeko, ez bada geroz eta mendekotasun gehiago izatea AEBetako laguntza ekonomikoarekiko. Iazko azken hiruhilekoan, ekonomia ia %20 jausi zen; orduetik, errekuperazioa hauskorra izaten ari da. Ez du ematen Washingtonnek hitzemandako 14.000 milioi dolarrek egoerari buelta emango diotenik. Alderantziz, zama ekonomikoak okerre besterik ez du egingo Israelek Hezbollahrekin gerran sartzeko asmoekin aurrera jarraitzen badu, Zisjordanian jarduera militarra areagotzen duen bitartean. Kontuan izan behar da herrialde batzuk –Turkia eta Kolonbia, kasu–, zigor ekonomikoak ezartzen hasi direla.

Gainera, krisia larritu besterik ez du egiten Finantza ministro Bezalel Smotrichen gaitasun faltak. Etengabe ari da

dirua bideratzen Zisjordanian asentamendu juduetara, baina ez dirudi bere departamentua gidatzeko gai denik. Israelgo Estatuaren eta Judeako Estatuaren arteko gatazka, urriaren 7ko gertakariekin batera, eragiten ari da elite ekonomiko eta finantzarioaren zati batek kapitala estatutik kanpora eramatea. Israelen, biztanleriaren %20ak ordaintzen du zergen %80a, eta %20 horren zati esanguratsu bat beren inbertsioak birkokatzea pentsatzen ari da.

- 3 -

Hirugarren adierazlea da *Israel geroz eta bakartuago dagoela nazioartean* eta pixkanaka estatu paria bilakatzen ari da. Prozesu hau urriaren 7a baino lehen hasi zen, baina areagotu egin da genozidioa abiatu zenetik. Horren erakusle dira aurrekaririk gabeko Nazioarteko Justizia Auzitegiaren (NJA) eta Nazioarteko Zigor Auzitegiaren (NZA) posizioak. Orain arte, Palestinarekiko elkartasuna lantzen duen mundu mai-

lako mugimenduak lortu zuen jendeak boikot ekimenetan parte hartzea, baina ez zuen lortzen aurrerapausorik ematea nazioarteko zigorraren esparruan. Herrialde gehienetan, agintari politiko eta ekonomikoek Israel babesten jarraitzen zuten erabat.

Testuinguru honetan, NJA eta NZAren azken erabakiak –genozidioa izan daitekeela, Rafahko erasoaldia gelditu behar dela, agintari israeldarrak gerra krimenengatik atxilotu behar direla– munduko gizarte zibilaren iritzia kontuan hartzeko saiakera gisa ulertu behar dira, ez eliteen iritziaren isla huts. Auzitegiek ez dituzte arindu Gaza eta Zisjordanian biztanleen aurkako eraso bortitzak. Baina lagundu egin dute Israelgo Estatuarekiko kritiken korua indartzen, eta hauek geroz eta goragotik eta behetik datoz.

- 4 -

Laugarren adierazlea da, aurrekoari lotuta, *mundu osoko judu gazteengan izan den errotiko aldaketa*. Azken bederatzi



PROFIMEDIA IMAGES

Soldadu ultraortodoxoen batailoia Gazan.

hilabeteetako gertaeren ondoren, ematen du asko prest dagoela Israelekin eta sionismoarekin duten lotura askatzeko eta aktiboki parte hartzeko Palestinarekiko elkartasun mugimenduan. Juduen komunitateek, bereziki AEBetakoek, Israeli inmunitate eraginkorra ematen zioten kritiken aurrean. Babes hori galtzeak, edo partzialki galtzeak, ondorio garrantzitsuak ditu herrialdeak munduan duen estatusen. AIPAC [AEBetako lobby sionista] taldeak oraindik izango du sionista kristauen laguntza, baina ez da erakunde ikaragarri bera izango boto-emaile juduen kopuru esanguratsurik gabe. Lobbyaren boterea higatzen ari da.

- 5 -

Bosgarren adierazlea: *armada israel-darraren ahulezia*. Ez dago zalantzarik IDFak indar boteretsua direla oraindik, abangoardiako armamentua eskura dutela. Hala ere, urriaren 7an agerian geratu ziren bere mugak. Israeldar askok uste du armadak zorte handia izan zuela,

Askotan desintegrazio prozesuak geldo hasten dira, abiada hartzen dute, eta denbora gutxian, amildu egiten dira sendo ziruditen egiturak

egoera askoz okerragoa izan zitekeelako Hezbollah-k bat egin izan balu, eraso koordinatu batean. Orduetik, Israelek argi utzi du AEBek gidatutako koalizio batekiko menpekotasun izugarria duela Iranen aurrean defendatzeko. Apirilean alde zuzen aurretik ohartarazitako eraso bat egin zuen Iranek, eta tripulatu gabeko 170 hegazkin baliatu zituen, misil balistikoez eta gidatuez gain. Inoiz baino gehiago,

proiektu sionistak estatubatuarren arma hornidura kopuru izugarriak azkar bidaltzea behar du. Horiek gabe, ezingo luke borroka egin, ezta hegoaldeko gerrillari armada txiki baten aurka ere.

Herrialdeko juduek modu orokortuan sumatzen dute Israel ez dagoela prest eta ez dela defendatzeko gai. Ikuspegi horrek presio handia eragin du judu ultraortodoxoen salbuespen militarra kentzeko, 1948tik indarrean zegoena, eta horietako milaka errekrutatzen has-teko. Horrek nekez aldatuko ditu gauzak gudu zelaian, baina armadari buruzko pesimismo mailaren seinale da, eta horrek, Israel barruko zatiketa politikoak areagotu ditu.

- 6 -

Azken adierazlea: *Palestinar belaunaldi gazteenen artean energia berritu da*. Askok batuago dago gazteria, organikoki konektatuago, eta Palestinako elite politikoak baino ikuspegi argiagoa du. Kontuan hartuta Gaza eta Zisjordaniako biz-



Palestinar bat puxikak saltzen Gaza hirian, Israelen aire erasoek suntsitutako eraikin baten aurrean. Mahmud Hams / AFP

tanleria munduko gazteenetakoa dela, talde honek eragin izugarria izango du askapen borrokaren bilakaeran. Palestinar gazte taldeen artean izaten ari diren eztabaidetan ikusi daiteke kezkatuta daudela ea nola sortu benetan demokratikoa izango den antolakunde bat. Palestina Askatzeko Erakunde (PAE) berritua izan daiteke edo antolakunde guztiz berri bat sortu, baina emantzipaziorako ikuspegi ezberdina beharko luke, Palestinako Aginte Nazionalak estatu gisa aitortpena jasotzea helburu duen kanpainarekiko antitetikoa. Badirudi nahiago dutela estatu bakarraren konponbidea, ospe txarreko bi estatuen ereduaren aldean.

Izango al dira gai sionismoaren hondoratzearen aurrean erantzun eraginkorra emateko? Erantzuteko zaila da galdera hori. Estatu proiektu baten kolapsoaren ostean ez dator beti alternatiba distiratsuago bat. Ekialde Hurbileko beste leku batzuetan –Sirian, Yemenen eta Libian– ikusi dugu zein odoltsuak eta luzeak izan daitezkeen emaitzak. Deskolonizazio prozesu bat litzateke kasu honetan, eta aurreko mendeak erakutsi digu errealitate post-kolonialek ez dutela beti hobetzen egoera ko-

loniala. Palestinarren sendotasunak eta indarrak eraman gaitzakete soilik norabide egokian aurrera. Uste dut, lehenago edo geroago, adierazle hauek guztiek bat egitean, egoera lehertu eta Palestinako proiektu sionista suntsituko dela. Hau gertatzen denean, espero dezagun askapen mugimendu sendo batek bete-ko duela hutsunea.

56 urte baino gehiagoz, “bake prozesu” deitu izan zaio inora ez zeraman prozesuari. AEB-Israelen ekimen multzo bat izan da, eta palestinarrei beti eskatu izan zaie erreakzionatzeko. Gaur, “bakea” deskolonizazioagatik ordezkatu behar da, palestinarrek aukera izan behar dute beren lurraldeaz duten ikuspegia artikulatzeko, eta israeldarrei erreakzionatzeko eskatu behar zaie. Lehen aldia litzateke, hamarkada askoan behintzat, Palestinako mugimenduak aurrea hartu eta bere proposamena aurkeztuko lukeena, azaltzeko nolako Palestina postkolonial eta ez sionista (daukan izena daukala) nahi duten. Hori egitean, Europari begiratuko dio ziurrenik (agian Suitzako kantoiei eta Belgikako ereduari), edo egokiago, ekialdeko Mediterraneoko antzinako egiturei, non sekularizatutako talde

erlijiosoak talde etnokultural bilakatu ziren pixkanaka, lurralde berean elkarbizitzan.

Nahiz eta jendeari ideia hau gustatu ala beldurra eragin, Israelen kolapsoa gauza aurrikusgarri bilakatu da. Aukera honek eztabaida baldintzatu beharko luke eskualdearen epe luzerako etorkizunari buruz. Pisua irabazten joango da jendea konturatzen denean mende bat iraun duen herrialde arabiar batean estatu judua inposatzeko saiakera, Erresuma Batuak eta Ameriketako Estatu Batuek gidatuta, poliki-poliki amaiera iristen ari dela. Nahikoa arrakasta izan zuen, milioika kolonoz osatutako gizarte sortzeko eta horietako asko orain bigarren eta hirugarren belaunaldikoak dira. Baina, iritsi zirenean bezala, beren presentzia bermatzeko, beren borondatea milioika indigenen gaitetik indarrez inposatu behar dute, eta indigenek ez diote inoiz uko egin beren aberriaren autodeterminazioaren eta askatasunaren aldeko borrokari. Datozen hamarkadetan kolonoei planteamendu hori utzi eta borondatea erakutsi beharko dute berdintasunean bizitzeko Palestina aske eta deskolonizatu batean. ●


“ Sareak ehuntzea da garrantzitsuena, laguntza eskaini eta batera lan egitea. Lehentasuna orain bizirautea da ”

Silvina Molina

Argentinako kazetari feminista

Genero eskubideen urraketaren inguruan mintzatu gara Silvina Molina kazetariarekin. Télameko (Argentinako albiste agentzia publikoa) Generoen eta Aniztasunen ataleko editorea zen Molina, Javier Mileiren gobernuak martxoan agentzia itxi zuen arte. Kazetaritza, inklusioa eta generoari buruzko liburuak idatzi ditu, komunikabide eta erakunde publiko zein pribatuak aholkatu ditu eta komunikazio eta genero alorreko aholkularia da nazioarteko erakundeetan. 2007az geroztik kazetari feministen sare nazional eta nazioartekoko kidea da.

 NEREA MENOR  TÉLAM AGENTZIA



Nolakoa da kazetari izatea Argentinan?

Kazetaritza egitea zaila da orain, bereziki genero kazetaritza. Genero desberdintasunak ukatzen ditu gobernuak eta behin eta berriz erasotzen digu. María O'Donnell kazetaria presidentearen erasoen jomuga izan da askotan; "character assassination" (erreputazioaren hilketa) deitzen dio horri, eta nik ere antzeko zerbait pairatu dut. Télam utzi nuen, Latinoamerikako agentzia zaharrenetako bat, Mileik aurten itxi duena. Orain, nire kazetari rola berraztertzen nabil, testuinguru berria ulertzen saiatzen eta nola jarraituko dudana erabakitzen.

Nola egiten diozue aurre egoera konplexu honi emakume kazetarietara?

Politikariek eta kazetariok egoera honetara nola iritsi garen aztertu beharra daukagu: zer egin den oker eta zer zuzen. Ondo egindakoa aitortu beharra dago, gertatu den aldaketa kulturala alajaina. Horri esker, Juan Darthés aktorea eta José Alperovich gobernadore ohia bortxaketatik kondenatuak izan ziren. Pedro Brieger kazetariaren jazarpenaren biktimak babestu genituen kazetariok, hemeretzi biktimek hitz egin zuten. Ordura arte pentsaezina zen hori.

Zein da orain estrategia?

Indarkeria jasaten duten emakume, nerabe eta haurrak babesteko politiken gabezia da egunotan salatzen ari garena. Feminizidioak eta estatuen laguntza falta aipatzean, gobernuko trollen erasoak berehalakoak dira sare sozialetan. Gobernu nazionalaren babes eskasa da probintzietan eta bertan jarduten duten



“Feministok elkarrizketarako eta gizarte gisa berrelkartzeko giltza daukagu”

emakume kazetarietara sareak ehuntzea da garrantzitsua, laguntza eskaini eta batera lan egitea. Lehenetsua orain bizi da.

Nolakoa da feminismoaren egoera Argentinan?

Gobernuak genero ikuspegiarekin lotutako arloak itxiko zituela jakitera eman zuenean berehala heldu zioten gaiari eta 300 erreferente feminista nazio mailako kongresuan bildu ziren. Mugimenduen indarra nabarmendu zuen horrek, koordinazio gaitasunaren erakusgarri aparta. Urriaren Emakume Plurinazionalen Topaketa izango da eta funtsezkoa izango da mugimendu feministarentzat. Itxaropentsu gaude 35 urtetan ekimen garrantzitsuen iturburu izan delako: zapi berdeen mugimendua eta abortuaren legalizazioaren aldeko ekimenen jatorria izan zen.

Genero Indarkeriaren Azpibatzordean egondako kaleratzeen ostean informazio gehiago eskatzen duen ekintza judizial kolektiboa aurkeztu berri da, gobernuaren aurka.

Mileiren gobernuak itxitako Emakumeen, Generoen eta Aniztasunen Ministerioaren azken azterna zen azpibatzordea –genero indarkeriari buruzko legeria ezartzen zuen erakundea–, baina orain langileen %85a kaleratu dute,





burua zen Claudia Barcia fiskala barne. Ez dakigu politika horietaz arduratzen den erakunderik dagoen gaur egun. Argentinak nazioarteko genero eta berdintasun eginkizunak urratzen ari dela dirudi, baita gure konstituzioak jasotzen dituenak ere. Egoera kezkarria da gobernuak ez duelako informazio argi eta koherenterik helarazten eta horrela, oso zaila delako gertakizunen jarraipena egitea. Benetan, ezohikoa da egoera hau.

Ekimen judizialak eskatzen duen bakarria informazio gehiago al da?

Informazioa eskuratzeko lege bat dugu Argentinan, informazioa lortzea bermatzen duena. Informaziorik ez dagoenez, errekurtso garrantzitsua da. Hainbat erakunde horretara jotzen ari dira, behar bezala informatzeko eskatzeko.

Eta zer dio oposizioak?

Kongresuak gogorarazi beharko luke legeak bete behar direla, baina ez du egiten. Egoera zehatz honi konponbidea aurkitzeko asmoa duen oposizio politikorik ez dago momentuz. Uste dut feminismoa eta emakumeen erakundeak askoz azkarra mugitu direla arlo honetan.

Eta horrek guztiak tentsioa eta gorrotoa areagotu ditu gizaratean.

Presidenteak eta bere bozeramaileek hizkuntza bortitza eta diskriminatzaileak erabiltzen dute emakumeen, aniztasunen, ahalmen urritasuna dutenen, pertso-

na arrazializatuen eta indigenen aurka. Herrialdeko agintari nagusiak diskurtso iraingarri hori erabiltzeak eragin du biztanleriaren sektore jakin batek diskurtso hori bidezko hartzea. Gainera, hizkera bera darabilten *influencer*-ak gonbidatzen dituzte (gizonezko kazetariak, batez ere) ohiko hedabideetara, eta kazetarien moderazio egokirik gabe, pentsaera horrek hedatzen jarraitzen du. Erronka nagusia da gizarte gisa nola berrelkartuko garen eta zelan egingo diogun aurre diskurtso horri. Erantzukizun guztia mugimendu feministaren esku ezin da utzi, baina beharrezkoa da komunikazio estrategiak birpentsatzea eta aztertzea zergatik diskurtso diskriminatzaileekin identifikatu diren hainbeste lagun.

Pertsona horiek elkarrizketarako gogoia dute?

Ez dut uste. Diskurtso automatizatua eta estatikoa dute, oraingoz oso zaila da elkarrizketa sortzea, baina hori izan beharko litzateke gure helburua.

Oso mediatiko bihurtu da 5 urteko Loan haur desagertuaren kasua. Pertsonen salerosketa sare batek bahitu duela uste da.

Loanen kasuarekin lotutako *fake news* batek zioen salerosketaren aurkako lege bat behar genuela, baina Argentinak badu lege hori. Gobernu berria sartu zenetik, pertsonen salerosketaren aurka lan egiten duten taldeak desintegratzen ari dira. Ez dakigu non dagoen Loan. Lehen, ume bat desagertzen zenean, sistema oso bat artikulatzen zen. Orain, haurtzaroaren organismo nazionalik gabe, ez dakigu koordinazioa nola kudeatuko den. Kasu honek agerian utzi du gobernu nazionalak ez duela kudeatzeko esperientziarik. Haien ideia politikoetatik haratago, hori da arazo handienetako bat.

Zer gertatu da genero-indarkeriaren biktimei babesa eta laguntza emateko politikekin?

Doako babes juridikorako Micaela Legea ez dago martxan. Probintzia batzuetan eta Buenos Airesen 144 linea-telefoniko propioak dituzte, baina estatuko gainerrako probintzietan ez, eta horrek erasotzaileak adoretu ditzake. Gizarte erakundeek bere gain hartu dute emakume mehatxatuen laguntza, baina eskariak gora egin du eta nazioarteko finantzazio bila dabiltza. Gainera, estatuko trans kupoaren legea ez da errespetatu eta kaleratzeak gehitu dira.

Eta abortuaren eskubidea?

Abortatzeko eskubidearen aurka azaldu da beti Milei. Gaia eztabaidatzeko proiektua aurkeztu zuen, baina gobernuak ez zion lehentasunik eman. Osasun Ministerioa da abortatzeko aukera bermatzeko materialak eta prestakuntza ematen dituen, baina gobernu berria dugunetik ez dago halakorik. Ez dakigu zenbat material dagoen erabilgarri, ezta noiz arte bermatu ahal izango den abortuaren praktika. Presidenteak eskubide horren aurka egotea mehatxu isil, baina irmoa da.

Herrialdeko genero-mapari eusten al zaio?

Lehen, Emakumearen Ministerioak biltzen zituen arlo guztiak, baina itxi zenetik ez da horrelakorik egon. Genero Berdintasunerako eta Emakumearen Ahalgintzerako Nazio Batuen Erakundearen agentziak eta Nazio Batuen Populazio Funtsak hainbat baliabide jarri dituzte erakunde feministen eskura eta laguntza sare berri bat sortu. Duela gutxi egin dute lehendabiziko bilera Buenos Airesen, eta oso ondo joan da, ikusmin handia dago.

Milei bozkatu duten emakume feministen testigantzak biltzen ari dira.

Bai, hala da. Feminista direla dioten hainbat emakumek Mileiri eman zioten boza. Zatiketa honetan, feministok elkarrizketarako eta gizarte gisa berrelkartzeko giltza daukagu. Agian, feministok elkartuko bagina, hor aurkituko genuke elkarrizketarako gune bat. Gizon gazte askok Milei bozkatu dute, baina abortuaren inguruan hitz egin dugunean, gobernuarekiko ezberdintasunak erakusten dituzte. Puntu hori, emakumeenganako indarkeria, feminizidioak edo haurtzaroarekiko abusua, benetan hurbiltzen gaituzten gaiak dira.

Nola irudikatzen duzu Argentinako egoera sozioekonomikoa etorkizunean?

Egoera analizatzea zaila da, prozesatzen nabil. Biztanleriaren ehuneko handi batek Milei aukeratu zuen. Boto-emaike horiek ez ditugu entzun orain arte, agian kasu gutxi egin zaie eta Milei ordezkari gisa ontzat eman dute. Ez naiz baiko-rra Argentinako egoerari dagokionez, ezta gobernu taldearen politika bortitzei dagokienez ere, baina feministok eraikitzen ari garen indarrari dagokionez, bai, gehien behar dutenak babesteko, gure bidea birpentsatzeko eta elkar laguntzeko. ●

EUSKARA NAFARROAN

Jarrera baikorrek areagotzearen beharra

Euskaltzaleen Topaguneko kideek euskara sustatzeko jarreraren inguruko datu kezkarriak hauteman dituzte. Hori dela eta, *Gero eta aldeko gehiago gizartean* ikerketaren bidez, herritarrak euskarara hurbiltzeko estrategia berriak landu dituzte. Horretaz mintzatu dira, apirilean, Iruñean egindako *Gero eta aldeko gehiago Nafarroan* izeneko jardunaldietan.

 OLAIA L. GARAIALDE  IÑIGO URIZ / FOKU

Datu kezkarriak mahaigaineratu ditu Euskaltzaleen Topaguneko euskarak aldeko gehiago behar ditu. 2021ean egindako inkesta soziolinguistikoez adierazten dute Nafarroan euskara sustatzeari buruzko jarreretan, %30 alde agertu zela, %33 ez alde ez kontra eta %37 kontra. Horrek eta euskararen erabilera “kamutsak” kezka eragin dute Euskaltzaleen Topagunean. Horregatik, euskara indarberritzea dute helburu. Oskar Zapatak, Topaguneko Nafarroako zuzendariak, nabarmendu du horretarako “garrantzi handiko” faktore bat dela “gizartearen gehiengoaren babesa” izatea. Hortaz, azken urteetan euskararen aldeko jarrerak aztertzen aritu dira.

Horretarako, 2021ean, hamaika pertsonen osaturiko giza talde bat osatzea erabaki zuten: herena euskalgintzari lotutako profesionalak izan dira, eta bi heren, hortik kanpo lan egiten duten euskaltzaleak; hala nola soziologoak, kazetariak, idazleak eta antropologoak. Bi urtez aritu dira euskararen bueltan sortzen diren “gatazka nagusiak” aztertzen. Zenbait talka eta afera identifikatu dituzte; hala nola %60k ez duela kontakturik euskararekin, D ereduan erabilerak “eskasa” dela eta ikasgelatik kanpo

kontaktua “gutxi” dutela ikasleek euskararekin; klase arrakalak “eragin handia” duela, euskal komunitatearen “homogeneotasuna”, zonifikazioaren ondorioak, legearen mugak, nazio identitateen arteko talkak eta suminak.

Talde horren bidez, zenbait xede adostu dituzte: gaur egun gizartearen zatidiren mezuen ildo diskurtsiboak eta argudio osagarriak eskaintzea eta gizarteratzea; euskara sustatzeko jardunbide egokien inguruan gogoetak eskaintzea; errealitate soziolinguistikoa eragitea; euskararekiko interesik ez dutenak edo urrun daudenak euskararen aldeko jarreretara hurbiltzea; konplize berriak erakarriz aliatuen sarea handitzea, eta euskara indarberritzeko neurri eraginkorren inguruko adostasun sozio-politikoak lantzea.

Orduetik ekintza ugari egin dituzte: 2021eko udazkenean 100 bat laguneko parte hartu zuten jardunaldiak antolatu zituzten. 2022ko udaberrian 25 laguneko osaturiko kontraste foroak egin zituzten eta 2023ko hasieran hamasei lagun erdaldunez osaturikoak; besteak beste, Nafarroara etorri berriak, gizarte mugimenduetako kideak, Erriberakoak eta Iruñerrikoak. 2023ko martxotik aurrera banan banako jarduerak egin dituzte

eragile sozio-politikoekin. Eta azkenik, aurtengo apirileko jardunaldiak.

IDEIA GAKO “OSAGARRIAK”

Bertan jasotako informazioarekin *Gero eta aldeko gehiago gizartean* txostena argitaratu dute. Iñaki Sagardoik, Topaguneko langile ohiak eta proiektuko kideak, nabarmendu du euskararen aldekoa den gizataldetik haratago dagoen gizartearen zati bat “konplize” bilakatzea dutela helburu: “Gure asmoa da erabilgarri eta osagarri izan daitezkeen ideia gakoak eskaintzea. Ez gatoz orain arteko praktikak ordezkatzera”.

Horretarako berdintasunean, aniztasunean, jasangarritasunean eta zaintzan oinarritutako zenbait ideia gako proposatu dituzte. Euskara sustatzea “aniztasunaren” eta “aberastasunaren” aldeko eta “uniformitatearen” kontrako hautua egitea dela azpimarratu du Sagardoik.

Zapatak gaineratu du euskararen sustapenak tokian tokiko ekonomia “garrantzi” laguntzen duela sustapenari eta kulturari loturiko lanpostuak eta enpresak sortzen dituelako eta antolatze-ko modu berriak eskaintzen dituelako: “Horrek guztiak aberastasuna ekartzen dio Nafarroari”. Horrekin batera, euskal komunitatea “irekia” dela dio: “Zure



Nafarroan euskara sustatzeari buruzko jarretetan, %30 alde agertu da, %33 ez alde ez kontra eta %37 kontra. Argazkian, Hordago! herri ekimenak 2022ko urriaren 22an Tuteran deitu zuen manifestazioa. Euskararen alde eta Nafarroa hizkuntza-eremuetan banatzearen aurka bildu ziren euskaltzaleak.

modura izan zaitezke euskaldun eta bes-telako kulturetatik aberastu eta identitateekin osatu”.

Hezkuntzak duen garrantziaz ere mintzatu dira, eta Sagardoik azpimarratu du hezkuntza integrala izan behar dela, eta horretarako, euskara curriculumean egon behar dela: “Herritar guztion eskubidea da euskara sustatzea”. Horrekin batera, herritar guztiei aukera berdinak eskaintzeko euskararen ezagutza bermatuko duen “eredu unibertsal bat” proposatzen dute. Hori lortu bitartean, zenbait neurri hartu daitezkeela uste dute. Esate baterako, gaur egun euskara eskaintzen duten ereduak “kalitate handikoak” izatea nahi dute. Horrekin batera, A ereduaren helburua euskararen ulermen maila altua eta hitz egiteko gutxieneko gaitasuna bermatzea izan beharko litzatekeela diote. Horrez gain, euskararekin kontakturik ez duten eskualde eta eskoletan alde-

kotasuna handitzeko lagungarria izan daitekeela diote.

Bizikidetzaz ere mintzatu dira; izan ere, antolatzaileen arabera, euskara biziberritzeko prozesuetan gatazkak egon badaude, eta “naturala” da. Horiei aurre egiteko euskararen mesederako neurri “sustatzaileagoak” hartu beharko liratekeela uste dute: “Nafarroan euskara eta gaztelania hizkuntza propioak izanik, aurrekoa bermatzeko biek estatus bera eduki beharko lukete”. Horretarako elkarbizitzan oinarrituriko neurri “demokratikoak” behar direla uste dute.

TOKIAN TOKIKO NEURRIAK

Nafarroa zabala da oso, eta euskararen egoera ez da berdina Bortzirietan, Iruñean edota Erriberan. Cristina Osesek, Azkoiengo (Nafarroa) soziologoak, nabarmendu du euskarara hurbiltzeko estrategiak lantzen direnean tokian tokiko errealitateei erreparatu behar zaie-

la: “Erriberan ez da euskara hitz egiten eta erabiltzen, eta ez da bizi gatazka bezala. Gehiengoari ez zaio axola, eta alde egon arren, ez dute deus egingo”. Hori dela eta, uste du “zailagoa” dela zenbait diskurtso barneratzea.

Erriberan zailtasun handiagoak badituzte ere euskarara eta euskalgintzara hurbiltzeko saiakera ugari egin ditu. Hala ere, sentitzen du euskaltegian izena eman arte ez dela bere jarrera kontuan hartu: “Helburu xeheagoak ezartzea euskara despolitizatzea dela esatea akatsa da. Uste dut horrela politizatzen ari garela”.

Betidantik mugimendu euskaltzalearen parte izan bada ere, apenas izan duen komunitate euskaldunik. Halere, uste du urteekin hori aldatzen ari dela eta komunitatea indartzen ari dela: “Horretarako gurasoek euskararen alde militatu behar dute eta euskarazko aisialdi espazioak sortu behar ditugu”.

Marina Massaguer, soziolinguista

“Bizi baldintza duinik gabe, oso zaila izanen da katalana bere egitea”



Katalanarekiko interesik ez dutenen inguruan aztertu du Marina Massaguer filologoak eta soziolinguistak (Tarragona, Herrialde Katalanak, 1982), eta azpimarratu du katalana nagusi den sozializatorako espazio “ireki” eta “horizontalak” sortzea “ezinbestekoa” dela: “Interes komunak bilatu behar ditugu, lortu behar dugu jendea sozializazio espazioetara gonbidatua sentitzea eta jendeak horiekiko interesa eta erakargarritasuna izatea”.

Diskurtso instituzionalatik urrundu, eta katalanarekiko interesik ez dutenengan arreta jartzeko eta ikertzeko beharra identifikatu du Massaguerrek. Interesik ezaren zergatiak aztertu, eta *No-catalanoparlants a Catalunya: identitats socials, desigualtats i llengua catalana* (Katalanak ez diren hiztunak: identitate sozialak, berdintasunik ezak eta katalana) tesian jaso ditu. Nabarmendu du bizi baldintzek eta sozializatorako espazioek eragin “handia” dutela hizkuntza berenganatzeko orduan. Iruñean izan zen Euskaltzaleen Topaguneak apirilean antolatutako *Gero eta aldeko gehiago* jardunaldietan.

Zergatik erabaki zenuen katalanarekiko interesik ez dutenen inguruan ikertzea?

Tarragonako Udaleko politika linguitikorakora zerbitzuan lan egiten nuen lehen. Hori dela eta, katalanaren inguruan sentsibilizatzeko tailerrak egin nituen Tarragonako kanpoaldeko eskoletako garbitzaileekin. Oso diskurtso instituzionala nuen, eta bat-batean hitz egiteari utzi, eta debaterako espazioa sortu nuenean azaltzen hasi ziren zernolako bizi esperientziak eta baldintzak izan dituzten, eta nola iritsi ziren Tarragonara. Orduan ikusi nuen euren lekuan egongo banintz ez nukeela katalana ikasiko eta diskurtsoa ez zela guk nahi genuen helmugara iristen. Hortik urte batzuetara, doktoretza egin nahi

“Baliabide ekonomiko urriagoak dituztenek ikasteko zailtasun handiagoak dituzte, katalanez egiten den espazioetara sartzea zailagoa delako”



nuenean, egun horretako oroitzapena desblokeatu nuen, eta ikusi nuen politika soziolinguistikoko berriak sortzearekin batera, ongi ezagutu behar dugula mezuaren hartzaila.

Oso profil konkretutik abiatu zinen, baina gero zabaldu egin duzu. Zein profil mota identifikatu dituzu?

Bi talde nagusitan banatu ditut. Alde batetik, ikuspegi administratiboa kontuan hartuta espainolak direnak, eta bestetik, nazioartekoak. Espainolen kasuan Kataluniara iritsi ziren urteen arabera sailkatu ditut: 1950 eta 1960 urteen artean lan egiteko iritsi zirenak, 1970 eta 1990 urteen artean ikastera iritsi zirenak eta Katalunian jaiotakoak; hau da, aurrekoen oinordeak. Nazioartekoei

dagokienez, jaioterriaren arabera sailkatu ditut, hala nola Indiakoak, Australiakoak eta Pakistanekoak dira.

Zer-nolako faktoreek eragiten dute hizkuntza ikasteko interesik eza?

Ez dute interesik baliabide materialekin, sozialekin eta sinbolikoekin pozik daudenek; hau da, behar duten dirua edo lana daukatenek, sozializatzeko espazioak dituztenek eta prestigio soziala dutela sentitzen dutenek. Adibidez, Ingalaterratik datorrenak oso erreminta baliagarria dauka: ingelesa. Ingeleseko eskolak eman ditzake, aurreztu dezake eta bere akademia sortu. Erabaki deza ke zein espaziotan ibili, baliabide asko dituelako, eta ziurrenik katalan hiztuna den kide bat izanen du kontu burokratikoak egiteko. Pertsona horrek ez du katalana behar, alternatiba asko ditu. Tesirako elkarrizketatu dudana pertsona baten kasua da.

Eta kontrakoa?

Ikusi dut katalana ikasi nahi dutenak direla baliabide materialak, sozialak eta sinbolikoak ez dituztenak; hau da, lan hobia eskuratu nahi dutenak, katalanez funtzionatzen duten espazio sozialetan sartu nahi dutenak eta katalan sentitu nahi dutenak.

Hala ere, nahia ez da aski. Zergatik ezin dute batzuek?

Baliabide ekonomiko urriagoak dituztenek ikasteko zailtasun handiagoak dituzte, katalanez egiten den espazioetara sartzea zailagoa delako eta ezin dutelako aukeratu zein eremutan ibiliko diren. Adibidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten ari den Indiako neska bat elkarrizketatu dut. Institutuan, gehienak Bangladeshekoak edo Pakistanekoak dira. Azkenean, inguru horietako hizkuntzetan hitz egiten dute. Neska horrek katalana eta gaztelania nahasten ditu, eta esaten du ikasi nahiko lukeela, baina ez duela norekin hitz egin.

Horregatik, esaten duzu beharrezkoak direla sozializazio espazioak sortzea?

Bai. 1950eko eta 1960ko hamarkadetan Kataluniara iritsi ziren pertsonen ibilbideari erreparatzen badiogu, ikusi dezakegu ez zutela katalana bere egin, baina bere seme-alaba eta bilobek bai. Hau da, familia proiektuak goranzko norabidea izan du. Pertsona horiek oso egoera prekarioan iritsi ziren, baina lan bat lortu eta

familia proiektu bat sortu zuten. Ez dute katalana ikasi behar izan, baina bazekiten euren seme-alabek bestelako lanak lortzeko aukerak izanzen zituztela ikasiz gero. Orduan, horretaz arduratu dira eskolatzearen bidez. Lantokiei, elizei eta sindikatuei esker, harreman estuak sortu zituzten katalan hiztunekin.

Nola eragin die horrek?

Horri esker, hizkuntza irisgarriago da, hizkuntzarekiko interesa eta ikasteko go-goia pizten dira, hobeto ulertzen dute eta dinamika soziolinguistikoaren inguruan katalan hiztunek dituzten ikuspuntuak ezagutzeko aukera daukate. Hau da, ez baduzu harremanik hizkuntza gutxiituak hitz egiten dituztenekin, soilik hizkuntza hegemonikoen diskurtsoa izanzen duzu; gaztelaniarena, kasu. Horrez gain, talde horietan dauden pertsonekin identifikatzen lagundu daiteke.

Helburua lortzera bidean zein erronka identifikatu dituzu?

Lehenik, interes komunak bilatu behar ditugu. Lortu behar dugu jendea sozializazio espazioetara gonbidatuta sentitzea eta jendeak horiekiko interesa eta erakargarritasuna izatea. Horrez gain, oso ohikoa izaten da identifikatzen dugunean norbaitek ez dakiela katalana galde-tu gabe gaztelaniara pasatzea zuzenean. Gainera, batzuetan jarrera arrazisten ondorioz zuzenean gaztelaniaz egiten diegu katalana dakiten pertsoneri. Katalana ikasi nahi duen norbaiti eskaini ahal diozun onena katalanez hitz egitea da.

Nolakoak izan behar dira sozializazio espazio horiek?

Benetan irekiak eta horizontalak diren espazioak izan behar dira. Lehen naturalago sortzen ziren espazioak ziren, baina orain geroz eta biztanleria zabalagoa daukagu, eta geroz eta aisialdi eredu indibidualagoak ditugu. Horregatik, espazio horiek sortu behar ditugu. Askotan esaten dut *castell* delakoak [giza dorreak] potentzial handiko espazioak direla. Harelere, ez dira mundu guztiarentzat erakar-



TONI JOYER

garriak; horregatik, abesbatzak, antzerki taldeak eta bestelako espazioak sortu behar ditugu. Katalana ikasteko gauzak egitea baino, gustuko ditugun gauzak egin, eta aldi berean, hizkuntza ikastea da helburua.

Tesian nabarmentzen duzu horretarako bizi baldintzak kontuan hartu behar direla.

Bizi baldintza duinik gabe, oso zaila izan da katalana bere egitea. Bizi baldintza duinak lortzen baditugu, errazagoa izan da elkarrekin lan egin, eta espazio horiek guztiak sortzea. Ezin ditugu politika linguistikoak modu isolatuan landu, eta bazter batean utzi gizarte eredu. Etxebizitza, hezkuntza, osasun eskubiak eta beste eskuratzeko irisgarritasunik eza kontuan hartu behar ditugu. ●

BABESLEA:

**LEZO
EUSKARAGARRI**



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

“ ”

Anti-euskaldun bat hautagai jarrita ezin daitekeela irabazi esplikatu zaie Pariseko buruei

Peio Dufau

Ipar Euskal Herriak dituen militante nekaezin horietarikoa dugu Peio Dufau: ofizioz tren gidaria, CGT sindikatuan buru belarri inplikaturikoa, Bake Bidean dinamikan engaiatua eta alabari Wolfram sindromea izeneko eritasun arraroa atzeman ziotenaz geroztik izen bereko elkartean ere dabilena. Ezkertiarra eta abertzalea, EH Baiko kide ere da as-

paldian. 2020an sartu zen Ziburuko Herriko Etxera, ezkerreko alderdien batasuna lehenetsirik eskuina uzkailearazten lortuta eta lehen aldikoz abertzale bat jarrita auzapez. Lau urte pasa direla, diputatu aulkia irabazi du Frantziako Legebiltzarrean. Fronte Herritar Berriaren ordezkari, abertzale gisa aurkezturiko Ipar Euskal Herriko lehen diputatua da.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN  DANI BLANCO/ ARGIA CC BY-SA

Parisera doan trena hartu aitzin jarri diguzu hitzordua. Nola zara? Diputatu kargu hori nola daramazu?

Pozik. Hortik harago, gauzak aldarazteko jendeak duen gogoia sentitzen dut. Sekulako lana bada egiteko, defenditzen ditugun baloreen alde, defenditzen dugun Euskal Herriaren alde. Herritarrek anitz espero dute eta horretaz kontzientea naiz. Eginbeharrak abiatzeko gogoz naiz ere. Orain arte bi egunez egon naiz Parisen, baina administrazio lanentzat izan da: talde politikoa osatzeko, lokala atzemateko... jantziak erosteko [irria]. Lehen hitzorduak finkatu behar ditut orain hemen: eragile guziekin bildu nahi dut, elkarteekin, auzapezekin... nire sarea osatzeko.

Sareturik aitzina egin nahi duen diputatua zara beraz.

Diputatu batek ez du nehondik ere jakintza osoa, eta horregatik dut tokiko eragileekin saretu nahi. Eragile guziekin egon nahi dut, ez bakarrik abertzaleekin. Eman dezagun laborantzaz hitz egiterakoan Euskal Herriko Laborantza Ganbareekin eta ELBekin egon naiz, baina FDSEA sindikatuarekin ere. Garrantzitsua da denen diputatua izatea, denen iritzia biltzea eta gero horretatik erabakitzea, beti ere harturiko posizioa esplikatzu. Esplikatzeko behar hori handia da, gainera, Parisen kokatzen diren eztabaidak ez direlako baitezpada hemendik igotzen. Biziki interesgarria zait hori, elkarrizketan eta eraikuntzan izatea maite dut. Sindikalgingintzan ibili naiz, eta beti ukan dut bestearekin biltzeko nahia. CGT sindikatuko kide gisa, hainbat urrats eman ditut LABekin lan egiteko bidean; ez nintzen bakarra bistan da, baina horren alde aritu

naiz. Herriko Etxean berdin, badu orain lau urte gehiengoan gabela Enekorekin [Aldana, auzapez abertzalea]. Hemengo oposiziokoek, hau da eskuindarrek, nire alde bozkatu dute. Horrek erakusten digu hitz egiten eta lan egiten baduzu, orduan jendeak ontzat hartzen duela zure engeiamendua.

Abertzale izanikan ere. Frantses batek abertzale baten alde bozkatzeari ezin irudikatua genuen berriki arte.

Bakegileek emandako urratsei esker gauzak aldatu dira azken urteetan. 2022ko Asanblea Nazionalerako hauteskundeetan hirugarren kokatu nintzen, EH Bairen izenean aurkeztuta. Harrigarria izan zen, hauteskunde horietan dena delako Parisen kokatzen eta ezkerrek baturik %19 lortzen zuelako eta EH Baik %15. Ezkerreko alderdietan baditut lagun ba-



tzuk eta erran izan diet zatiturik galtzaile goazela. Ez nuen sekula pentsatuko hain fite berriz bozkatuko genuenik eta aliantza lortuko zenik Parisen baita hemen ere. Zinez pozgarria da. Baliteke frantses alderdi batzuentzat nire irudiak bidea erraztu izana, haiekin egon naizelako sindikalgintzan militatzen. Ezagutzen naute eta ez dute ezkertiar gisa ditudan baloreei buruz dudarik.

Bozketaz bozketa boto abertzaleak duen garapena nola azaltzen duzu?

Erran bezala bake prozesuak erraztu digu bidea. Aurore Martinen kontrako euroaginduaren testuinguruan elkarriketak hasi genituenean [2011n] erabat

“ ”

EH Bairen baitan eztabaida egon da Fronte Herriar Berriarekin aurkezteari buruz, baina azkenean %95 alde agertu da

bestelakoa zen egoera. Hasteko hitz ezberdinak erabiltzen genituen; pentsa, Alderdi Komunistakoentzat preso politikorik ez zen existitzen Euskal Herrian. Isileko lanketa handia eraman zen: anitz hitz egin zen; hiztegi bera erabiltzen hasi ginen; bakoitza bestearen egia entzuten, ulertzen eta onartzen hasi zen... Aietero Adierazpena eta ondorengo urratsak ekarriko zituen horrek. Euskararen aldetik berdín, adostasun zabala bada Ipar Euskal Herrian. Begira Beskoitzeko afera: ikastola ala auzapeza, ikastola da garaile. Gaur egun inor ez da euskararen kontra kokatzen, eta hori urte luzez eramandako lanaren emaitza da. Ziburun gauza bera, Herriko Etxea irabazi dugu, baina aitzin oposiziotik sekulako lana eraman izanari esker ere da. Gizarte bat guzien artean eraikitzen da, eta abertzaleok guzientzat gabiltza lanean. Betidanik entzun izan dugu “kasu horiekin, lanjerosak dira”. Baina orain Herriko Etxe batzuk irabazi ditugu, eta bagabiltza lanean. Hori ikustearekin ulertzen duzu urrats handiak eman direla bidean. Begiratu seigarren hautesbarrutia: Herriko Etxeak ditugu Uztaritzen, Urruñan Ziburun, Itsasun... Gauzak aldatzen ari dira, eta seriozki lan egiten segituz gero, beste borroka batzuk ere irabaziko ditugu. Etxebizitzaren aldeko borroka abertzaleen borroka izan da historikoki, IK-k hori aipatzen zuen duela 40 urte, eta gaur egun denek dakigu arrazoi zuela.

Fronte Herriar Berriaren barne aurkezteko aukerak desadostasunak sortu ditu EH Bairen baitan?

Eztabaida egon zen, baina proposaturiko akordioaren alde egin zuen %95ak –jakinenez akordioa bozkatzerakoan, bosgarren barrutirako hautagaitza anti-abertzale bat zela-. Adostasun zabal hori esplikatu daiteke batetik, beldurgarria delako eskuin muturra hain azkar ikustea eta bestetik, ezkertiar alderdi guziekin bat egite hori historikoa delako. Aitzinetik, herriko etxeei begira ezkertiar indarren artean batu gara herri batzuetan –Ziburun, Urruñan,...-. Nire kasuaz hitz egin dezaket eta Ziburuko Herriko Etxeari dagokionez, biziki ongi pasatzen da. Horren berri eman behar da, baita Parisera begira ere.

Bosgarrenean anti-abertzalearen orde Colette Capdevielle jarri zen azkenean, eta bere ordeko EH Baiko Alain Iriart. Nolatan posible izan da horrelako aldaketa handia?

Hastapen batean Sandra Pereira-Ostanel zen hautagaia, Frantzia Intsumisioa alderdikoa. CGTko militantziatik laguna dut, baina bai, anti-euskalduna da. Anitz hitz egin da eta Pariseko buruekin ere, esplikatzeko anti-euskaldun bat jarrita ezingo litzatekeela irabazi. Argiki mahaigaineraturiko baldintza izan da.

Parisek entzun izana harrigarria da. Bai, eta entzuteaz gain kontuan hartu dute. Harrigarria da, baina, erran bezala, gogo baldin bada eraiki daiteke.

Bide berriak zabaldu ditzake horrek. Capdevielle eta Iriarten binomioari begiratu eta gogo Baionako Herriko Etxera doa. Eskuina dugu tinko aspalditik Lapurdiko hiriburuan. Aldaketarako aukera ekar dezake bateratze horrek. Ezinezkoa zirudiena egingarria dela ikusi da.

Bi egia bota dituzu hor. Batetik, erakutsi dugu lan egin dezakegula elkarrekin, eta bestetik, baieztatu da anti-euskalduna den norbait ez dela pasako. Hori Jean-René Etchegarayk [Baionako auzapeza, zentro-eskuinekoa] aspalditik daki: Seaskaren abokatua izan zen, EHLGkoa ere bai. Ez dut ulertzen frantses ezkertiar alderdien jarrera. Baina diozun bezala, Baionako Herriko Etxeko hautagai Henri Etchetok [Alderdi Sozialistakoa, jakobino] kristalizatzen ditu bere kontrako posturak –eta pertsona ez dut epaitzen ez dudalako ezagutzen–. Nola nahi duzu horrek Baionako Herriko Etxea irabaztea? Ezin da. Ez dute ulertua irabazteko dena jarri behar duzula zure alde. Hori hitzetatik harago doa, ekintzen bidez ere kokatu behar zara.

Hauteskundeetan gora, baina zer diozu karrikako aktibismoaz. Esparru hori ahultzearen arriskua bada?

Biak batera eta bateragarri ikusten ditut. Gainera, iraganean inoiz irabaziko ez genituen borrokak irabazten ditugu gaur egun. Segitu behar dugu aitzina ideien borroka horretan, beti ere seriohasunez. Nik sinesten dut, sinesten dut arrazoi dugula eta bide onean garela, eta sinesten dut horrela segituz gero irabaziko dugula. Baina horretarako lan egin behar da.

Bizkitartean EH Baiko kide, diputatu zaitugu Frantziako Legebiltzarrean. Berezia deke han kausitzea, politikari frantses ospetsuen ondoan, RN eskuin muturreko ordezkarien alboan...

Bai, berezia da. Iragan astean, adibidez,



“ ”

CGT sindikatuan borrokatu naiz langileen defenditzeko, baita euskaldun eta ezkertiar abertzale izaera defenditzeko ere

Laurent Wauquiez [Errepublikarrak alderdi eskuindarraren presidentea] nuen bizkarrez bizkar bazkaltzerakoan. Berezia da, baina aldi berean horrela da: militantzian ere parean ukan ditut gure lanpostuak desagerrarazi nahian dabil-tzanak. Uste dut horrelakoetan errespetuz jokatu behar dela eta ideien bidez jokatzen dela buruz burukoa. Gure ideiak defenditzeko gogoz naiz, prest naiz.

Abertzale bat legebiltzarrera, baita sindikalistak, militante antiarrazistak, aktibista antifaxistak, ekintzaile feministak ere. Interesgarria da ikustea FHBk nola eraldatu duen legebiltzarra.

Garaian Macronek ere zioen eraldaketa nahi zuela ekarri; baina gizarte zibileko jende politizatu gabea sarrarazi zuen,

hain justu, berak nahi zuen horren alde bozkarazteko. FHBren baitan, aldiz, ibilbide politiko eta militante luzeko jendea bada. Nahiz eta 45 urte ukan, badut ibilbide aski luzea sindikalgintzan, eta argi dut inork ez didala erranen zer egin behar dudana: hitz eginen dugu eta elkarrekin erabakiko dugu, ez gutiago ez gehiago. Horrela funtzionatu dut beti eta horrela funtzionatuko dut. Manuak ez dira pasako. Horrek balio du niretzat, baita ezagutzen ditudan beste batzuentzat ere. Diputatu bazara, zuretik pentsatu behar duzu eta zure lurraldeko jendeen boza eraman behar duzu Parisera.

Euskaldun eta abertzaleen aldarriak barne.

Noski, besteak beste, euskararen gaia eta gatazka politikoarena. Baina Asanblea Nazionalean eramanen den lan horretaz gain, bada Pariseko ezkerreko alderdietako buruei begira eraman beharreko lana ere. Arras ongi dakigu zein den horien postura, Jean-Luc Melnchonon posizioa badakigu ez dela baxterea ona. Horiekin hitz egin behar da, ulertu gabe jendea beldurtzen delako –eta hori egia da alde guzientzat–. Parez pare mintzatzeko aukera horrek gure arteko harremanak erraztuko ditu. Alderdi horien tokiko buruak gure kontra ditugu beti. Horrek ez du zentzurik, erran izan diet behin eta berriz. Borroka sozialaz gain, ezkerrean borroka nagusietan dugu kulturaren aldekoa. Nola demontre izan daitezke kulturaren oi-

narrrian den tokiko hizkuntzen kontra! Frantziaren batasunaren ideia daramate beti. Estrasburgoko frantses batek Euskal Herrira trabarik gabe etortzeko aukera errespetatu beharra ohartarazten dabil-tza beti. Guk hemen preziatzen dugu lan-gile bat euskalduna denean, baina ez dugu baztertuko ez bada euskalduna –haatik, euskara ikasteko formakuntzak proposa-tuko dizkiogu–. Eztabaida hori Parisera eraman behar dugu, ohartarazteko ez ga-rela etsaiak eta ikusi dezatela nazionalis-tez duten irudiarekin ez gatzela bat. CGT sindikatuan borrokatu naiz langileak de-fenditzeko, baita euskaldun eta ezkertiar abertzale izaera defenditzeko ere.

Emmanuel Macron presidenteak ez du ezagutu nahi ezkerraren garaipena. Berezia da egoera.

Komedia bat da, Macronek bere jokoan segitzen du, nahiz eta azken asteetan %100 oker egon. Asanblea Nazionala desegiterakoan pentsatzen zuen ezker-rra ez zela batuko, eta berez jokaldi ona zuen, ikusi dugulako eskuin muturra oz-topatzeko botoa egon dela; beraz, ezker-rra ez balitz batu, bere alde joanen ziren boto horiek. Kalkulu ona zuen, kontua da ezkerreko alderdiak antolatu direla eta hori ez zuela aurreikusia. Antolaketa hori ezin da horretan gelditu. Nire irudi-ko, lan bateratua ahalbidetzeko bidean buru batzuk hortik kendu behar baldin badira, orduan, kendu behar dira. Kan-painan zehar ikusi dugu Melenchonen inguruan eraikitakoa: hedabideek go-rrotoaren hautagai gisa kokatu dute, aldi berean, Jordan Bardella erabat zurituta. Melenchonen ikuspegi guziak ez ditut onartzen, egiteko manierak ere ez, bai-na programa ona du, biziki ona gainera. Hedabideek lortu dute pertsonaren zi-kintzea, justu bere hautagaitza eta mu-gimendua deskalifikatzeko. Horrez gain, uste dut Asanblea Nazionalan portaera egokia ukan behar dugula, seriosasuna-rena eta eraikuntzarena, eta egia da, az-ken bi urteetan ez dela beti horrela izan.

Baina ez al du onartuko ezkerraren garaipena?

Komedia batean gara. Ezkerrak zailta-sunak ditu lehen ministroaren kargura-ko ordezkaria adosteko. Hor bakoitzak du bere ikuspuntua, bakoitzak du bere egoa, eta horretaz baliatzen da Macron. Baina ez du iraunen. Macronek badaki ezin duela aliantzarik egin eskuin mu-turrarekin eta horretan du muga, ez-kerrekoak gabe ezin du deus egin. Epi-



Peio Dufau, uztailearen 7an, garaipenaren berri ukan eta berehala.

fenomeno bat dela erran nezake, guti iraunen duena eta etorri bezala pasako dena. Berez, fenomeno nahiko klasikoa da, gehiengo osorik gabe funtzionatzen dute Europako anitz parlamentuk. Nahiz eta ez den beti erraza, egin daiteke. Gau-za da hedabideek anitz hauspotzen dute egoera.

Bukatzeko, zer diozu *Libération* egunkariak ateratako informazioaz? Bilera sekretuak egiten zebiltzan Macronen hurbilekoak eta RNko Bardella zein Marine Le Pen, gutienez abenduaz geroztik.

Lotsagarria da. Eskuin muturraren az-kartzea izan da Macronen hainbat urtee-tako jokoak, eta orain eskuin muturra eta "ezker muturra" deitzen duen ezkerre-ko hautagaitza hein berean jartze hori ezin onartuzkoa da. Frantziaren histo-ria ez du ezagutzen, ez da posible. Nola demontre lan egin edo hitz egin dezake horrelako ideak dituztenekin? Ez dut ulertzen. Argi dena da enpresa handiak babesteko neurriak proposatzen dituela eskuin muturrak. Dirudun handien esku diren hedabideek Bardella eta Le Pen hainbeste babestu izana horrela ulertzen dut. Ondoko urratsa prestatzen dabil-tza hedabide horiek: ikusi dute Macron errea dela –eta arrazoi dute–, beraz parekoari

begira dabil-tza –ezkerra ala eskuin mutu-rra–. Badakite eskuin muturrarekin ongi konponduko direla. Ez dezagun ahantzi Macron Rothschild bankutik datorrela: ez da eragile politiko bat, eragile ekonomiko hutsa da. Alderdirik gabe nola lortu ze-zakeen kanpainaren diruztatzea? Dirua parrastan jaso zuen, hedabide guzietan zen eta irabazi zuen. Geroztik badabil en-presa handien eta dirudunen alde ahal duen guzia egiten. Gaur egun berak ditu ezkertiarrek ezker muturrekotzat jotzen –noiz eta FHBren programa ez denean François Mitterranden [1981eko presi-dentea, sozialista] programa bezain an-biziotsua!–. Hitzek garrantzia eta eragin handia dute, eta hedabideek sekulako mina egiten dute, eskuin muturra zuritu-ta. Sare sozialei dagokionez, gauza bera. Beldurgarria da. Kontzientzia politikorik gabe, eskuin muturraren aldeko botoa eman duen jende anitz bada. Horiei begi-ra sekulako lana badugu egiteko. Eskuin muturrak gordetzen duena argira ekarri behar dugu.

2027an izanen diren Frantziako presidentetzarako bozak aitzin. Presa handiko erronka duzue.

Bai eta 2027ra arteko bide horretan ga-rrantzia handikoak ditugu lehen aste eta hilabete hauek. ●



Zergatik erori da orain auzi osoa, akatsa egin eta hiru urtera?

Jesús Rodríguez
Tsunami Democràtic auzia

Zortzi hilabeteko erbestealdiaren ondoren, etxera eta *Directa*-ko erredakziora itzuli da Rodríguez (Gramanet del Besós, Bartzelona, 1974). Inork ezer espero gabe, uztailaren 8an, arratsalde bakarrean, erabat irauli zen bera eta beste hamaika inputaturen aurkako auzia. Ideia egina zuten gutxienez beste urtebetez Suitzan segitu beharko zutela.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  VICTOR SERRI / DIRECTA - CC BY SA

Zer moduz zaude?

Ederra izan da itzulera, eta mamitsua ere bai. Bi momentu oso berezi: Suitzan erbesteratu ginenon ekitaldi politiko-mediatikoa, eta pertsonalagoa ondoren, lagun artekoa, nire auzoan.

Zer gertatu da hain bizkor, ia-ia egun batetik bestera, bueltan izateko?

Ikuspegi tekniko-juridikotik hitz eginda, gertatu dena da Auzitegi Nazionalako apelazio aretoak indargabetu egin dituela ikerketaren azken hiru urteak, instrukzioa epez kanpo -24 ordu- luzatu zuelako epaileak 2021eko uztailaren. Horrek eraginda artxibatu da gure aurkako auzia. Izan ere, hain justu, azken hiru urteotan erantsi ditu Guardia Zibilak guri terrorismoa leporatzeko moduko ustezko probak.

Auzia erabat itxita dago ala atzera ere zabaltzeko modurik aurki dezakete? Alegia, zerbaiten esperoan zaudete?

Vox, Societat Civil Catalana eta Dignidad y Justicia elkarteek [eskuin muturrekoak hirurak] errekurtsio bana ipini diote auzia artxibatzeko erabakiari. Erantzun horren zain gaude. Auzia, ofizialki, behin-behinean artxibatu zuen García-Castellónnek, prozedura legalak horretara bultzatzen zuelako, hau da, nahikoa proba ez zituelako; eta, beraz, akusazioei epea luzatzen zien iritzia azaltzeko. Aurreikusitako genezakeena egin dute, ez besterik. Baina gure abokatuek konfiantza osoz diote ez dagoela aukerarik.

Maiatzean egon ginen zeurekin eta Ruben Wagensberg ERCko diputatuarekin, Genevan (Suitza). Hiru aterabide zenituztela zenioten. Horietako bi Europako Justizia Auzitegiaren eskuetatik pasatzen ziren. Bestea, Amnistia Legearen aplikazio zuzena. Argi zenioten ez zizuetela onartuko... eta azkenean ez da behar izan ere.

Gure aurkako auziaren 180 graduko itzulia ezagutarazi baino ordu gutxi lehenago, goiz horretan, uztailaren 8an, abokatuekin bilera garrantzitsua izan genuen, Auzitegi Nazionalak egun gutxi lehenago erabaki baitzuen Europako Justizia Auzitegira jotzea, Amnistia Legea aplikatu behar ziguten ala ez galdetzeko. Ez zen guretzat sorpresa izan, alde guztiei iritzia eskatu baitzien lehenago.

Hala ere, behin Luxenburgora galdera bidalita, posible zuten kautelazko neurriak kentzea eta auzia blokatuta uztea; hau da, diligentziarako aukerak ixtea, baita guri deklaratzera deitzeko bideak ere. Baina ez zuten hori egin. Une horretan, gure agertokirik probableena zen erbesteratze urtebete edo urte eta erdi gehiago egitea, Europako Justizia Auzitegia mintzatu arte.

Zuekin batera inputatua zen ERCko Marta Molinak jarri zuen gerora



Rodríguez bere lagunartek eta auzoak egindako ongiatorria.

auzia artxibatzea ekarri duen helegitea. Ez zenuten bide horretatik ezer espero?

Ez, inola ere ez. Epez kanpo luzatzearen elementu hori, hain justu, mahai gainean egon zen lehenago ere, eta epaileek ukatu egin ziguten helegitea. Akats gehiago ere egon dira ikerketa-auzian, eta erreklamazio horiek guztiak ukatu izan dituzte. Askotan entzun ere ez gaituzte egin. Galdera hori betirako geratuko zaigu: zergatik erori da orain auzi osoa, akats hori egin eta hiru urtera?

Uztailaren hasieran etorri da, García-Castellón epailea oporretan dela... Zenbaterainoko eragina izan du horrek?

Horri guztiari elementu bat gehitu zaiola esango nuke: auzia artxibatzea erabaki zen egunaren buelta horretan, Europako Justizia Auzitegiari bere argudioak eman behar zizkion Espainiako botere judizialak.

Uste dut epaile batzuk ikuspuntu korporatiboa izan ohi dutela, eta beste batzuk judiziala. Beldurra izango zuten ea Luxenburgoren emandako azalpen horri zaplazteko galanta emango ote zioten bueltan, ez duelako ez zentzurik eta ez sostengurik, funtsean, guri terrorismo delitua egozteak.

Ikusita Espainiako Justiziak zer nolako aurrekariak dituen Europarekin, uste dut beldurraren faktore hori existitzen

“”

Europak Espainiari esango balio terrorismo delitua zentzugabea dela eta Zigor Kodea erreformatzeko, kolpe gogorra litzateke

dela, eta “autobabes” mekanismo bat izan dela gure auzia artxibatzeko erabakia. Auzitegi Nazionalak makina bat bider leporatu du terrorismo delitua manifestazioak eta protestak egiteagatik, baita ere, inkluso, “borroka” kasuetan, Altsasukoa adibidez.

PPri, Voxekin dituen azkenaldiko gatatzak ikusita, interesa zekiokkeen auzia artxibatzea?

Akaso bai, baina ez dut uste. Gainera, mediatikoki desagertuta dabil azkenaldian auzi honetan. Baina begira, imajinatu auzia artxibatu ez eta Europako Justiziak Espainiari esaten ziola terrorismo delitu horiek zentzugabeak zirela eta, gainera, horrelako bidegabekeria judi-

zialik gehiago gerta ez dadin, Zigor Kodea erreformatzea exijitzen zuela. Kolpe gogorra litzateke PPrentzat, legedi hori bere interesera egina dagoelako.

Uztailaren 12an itzuli zineten Herrialde Katalanetara, zuk eta beste batzuk zortzi hilabete erbesteran pasa ondoren; eta batzuk denbora gehiago. Argazki ikonikoa atera zenuten mugan: ERCKo bi kide, Òmniuneko bat, aktibista-enpresari bat eta kazetari bat. Krispazio garaiotarako, irudi esanguratsua.

Argazki hori behartua eta nahitaezkoa zen, hor ginen guztiok sare eder bat osatu dugunaren adierazle. Erbestea partekatu dugu, harreman pertsonal bikainak eraikita, eta batera egin diogu aurre neurrigabeko jokabide judizialari. Mezu indartsua transmititu nahi genuen. Baina jakina, askotariko esparrutako jendea gara, eta beraz, bakoitzak sentitzen duen ardura eta etorkizunari begirako ikuspegia aski ezberdinak dira. Ez dut uste argazki horretatik haragoko irakurketarik egin daitekeenik.

Tsunami auziko guztiak ez zaudete libre: Carles Puigdemont falta da.

Auzi gehiago ixteke daude oraindik, *procés*-ari loturikoa kasu. Auzitegi Gorenak nahieran interpretatu du diru publikoa bidegabe erabiltzearena. Esan du Puigdemontek “aberasteko” erabili duela diru publikoa, bere mesederako, bere nahiak asetzeko. Alegia, espektroa zabaldua, zera esaten du: nahi pertsonalak ekintza politikoekin burutu dituela. Politikari guztiak, beraz, badirudi ezin dutela sinesten duten horretan lan egin.

Logika judizial bidegabe horren erruz, Carles Puigdemont, Lluís Puig eta Toni Comínek ezin dute etxera itzuli. Baina ikusiko dugu zer gertatzen den. Itzultzeko borondatea dute, eta aste edo hilabete gutxi barru egitekotan dira. Atxilotuak izatera arriskatu dira.

Aldi berean, PSOEren Espainiako Gobernua gero eta argiago esaten ari da auzi horiek Auzitegi Konstituzionalak ebatziko dituela [PSOEren inguruko magistratuak daude hor], eta aipaturiko hiru erbesteratuak horrekin jokatzeko ari dira, besteak beste, Kataluniako gobernu berria osatzeko, PSOEek independentisten laguntza behar baitu. Ikusteko dago ea PSOEek agindua ematen dion Auzitegi Konstituzionalari laster batean urgentziaz biltzeko eta atxilotze agindu horiek indargabetzeko. ●

ERRETRETA



Hernaniko (Gipuzkoa) Tripontzi jatetxean egin zuen bazkaria ARGIAko lantaldeak. Xabier Letona lankidearen eskutik jaso zuen Argia Saria berezia Pello Zubiriak, erretreta hartu bezperatan.

1980tik txikitik eragiten

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Zeruko Argia, 1980ko martxoaren 30eko astekaria. 29. orrialdean, Artasok sinatzen duen artikulua aurkituko duzue. Hiru orrialde idatzi zituen *Pintxadiskoak: otsolarruz jantzitako ardiak (I)* izenburupean. Horrela hasten da artikulua: "Behin batean ba omen zihoan azeri harro bat, ia tontoa bezain harroa, kaleetan zehar, eskuan irratia, Los cuarenta principales entzunaz (...), Patti Smithen bajo demassak txoraturik". Honezkero hartu diozue tankera zeri buruzkoa izan zen artikulua. Horixe izan zen Pello Zubiria Kaminoren lehenengo artikulua *Zeruko Argia*-n, garai hartan ohikoa zen moduan ezizenez sinatuta. *Zeruko Argia*-k "zerua" galduko zuen 1980ko uztailaren bukaeran. Pintxadiskoei buruzko kolaborazioarekin hasi eta ARGIAren proiektuan buru-belarri aritzera igaro zen Zubiria. 24 urteotan denetarik probatu du: Antza inprimategian, gorbata jantzita erakunde publikoetako bulegoetan, zuzendari, argazkilari, eta kazetari.


ARGIA SARIAK HERNANIN

Uztailaren amaieran erretreta hartu du eta ARGIAko lantaldeak agur-bazkaria antolatu zuen hilaren 12an Hernanin. Aurten salbuespena egin du ARGIAko lantaldeak eta urtarrilekoez gain, bigarren Argia Sariak antolatu zituen hilaren 12 hartan. Urtarrilekoetan ez bezala, saridunak ustekabeen jaso zuen saria Xabier Letonaren eskutik, Antton Olariagaren oroigarri "benetakoa". Sarian hauxe serigrafiatuta: 1980tik txikitik eragiten. *Txikitik eragiten* leloa Zubiriak berak asmatu zuen 2015. urtean Oñatin egin genuen Argia Egunerako. Hala aurkeztu genuen leloa orduko hartan: "Txikitasunak lotura handia duelako ARGIAren izateko moduarekin eta gurean lantzen ditugun gaiekin, desazkundearekin, eredu jasangarriago batekin, herrietatik sortutako jendarteko mugimenduekin... Txiki asko, txikitik eragiten, bestelako mundu baterantz bidea urratzeko gai garelako".

EZ ADIORIK

Ofizialki azken laneguna izango du uztailaren 30a. Beste kontu bat da, ordea, Lasarteko egoitzara etortzeari uztea. Despedidako bazkaritan lankideok gogorazi diogu, gutxienez, bazkariak eta kafe-hartzeak espero ditugula, eta batek daki kazetari zakur zaharrak bere betiko luma zorrotzez artikuluren bat idatziko ote duen. Oraingoan, Zubiriaren azken pieza *Erraustegiak lehen pozoiak erakutsi baldin baditu... zer egin?* izenburupean, ekainaren 13an argitaratutakoa izan da. ToxicWatch fundazioaren txostena kontatu du, zeinak Gipuzkoako erraustegiaren emisioen bost urteko jarraipenaren emaitzak aurkeztu dituen. Bukaera emateko modu aproposa, Zubiriak, kazetari eta herritar gisa, Zubietan auzoan (Donostia) eraiki duten erraustegiaren ingurumen eta osasun arriskuak azaleratu eta egitasmoa bertan behera uzteko lan egin baitu azken urteotan. ●

Kultura grekoaren seme-alabak gara?



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Anbraziako golkoa (Itsaso Jonikoa). K.a. 31ko irailaren 2a. Aktiumgo itsas guduan garaipena lortu eta Egiptoren gaineko kontrola ziurtatu zuten erromatarrek. Horrenbestez Mediterraneo hegemonia grekoa amaitutzat jotzen da data horretan, baina eragin helenikoak gaurdaino iraun du. Arnaldo Momigliano (1908-1987) historialariak duela ia mende erdi idatzitako *Alien Wisdom: The Limits of Hellenization* (1975) lanaren hasieran zioenez, “*homo europaeus* arbaso helenikoek intelektualki baldintzatzten dute gaurdaino”. Lan hura italiarara itzuli zuten 1980an *Saggezza straniera. L’Ellenismo e le altre culture* izenburupean. Eta 1988an titulu hau jarri zioten gaztelaniazko itzulpenari: *La sabiduría de los bárbaros: los límites de la helenización*. Arrotz, atzerritar eta barbaro hitzak sinonimotzat jo daitezke kasu honetan, jatorri grekoa duen barbaro hitzak horixe esan nahi baitzuen: arrotz, atzerritar. Baina Grezian bertan, eta geroago eta areago Erroman, hitzak kutsu despektiboa zeukan, haien ustez inguruko kulturekiko zeukaten nagusitasuna agerian utzita.

Baina Momiglianok bere lanean, helenismoaren eragina ukatu gabe, beste kultura batzuekiko harremanak lantzen ditu: erromatarrek, zeltak, juduak, egiptoarrak, persiarrek... Eta ondorioztatzen du zenbaitetan, eragin grekoa ez zela uste bezain sakona izan, judais-



CAROLE RADDATO

Aktiumgo Itsas Gudua markatu zuen helenismoaren nagusitasunaren amaiera. Eta duela mende erdia, Arnaldo Momiglianok kultura grekoaren eraginaren mugak azaldu zizkigun.

moan esaterako. Greziar pentsamenduak azaleko eragina izan zuen judaismo itxian. Eta, gainera, erromatarren presiopean helenismoa disolbatu zen arren, hebrear kulturak bizirauteko gaitasuna izan zuen.

Eta beste kasu batzuetan, eragina ere kontrako norantzan esanguratsua izan zela dio Momiglianok. Persiarrei dagokienez, aspalditik gainera. K.a. VI. mendean persiarrek Lidia eta Jonia mendean hartu

zituzten, eta bi kulturen trukea ahalbidetu zuen horrek. Hala, Momiglianok dio persiarren eragina nabarmena dela, esaterako, Heraklitoren justizia kontzeptuan edo Anasimandroren astronomian, eta pentsamendu filosofikoaren jaiotzan Zaratustrak zeresana izan zuela.

“Guztiak greziarrak gara” zioen Percy Bysshe Shelley poetak. Arnaldo Dante historialariak, aldiz, harreman kulturaz nizegunetik jaio ginela azaldu zigun. ●



INAH

Bilbaoko ehiztari-biltzailea

Mexikoko Coahuila basamortuan, Bilbaoko dunak izeneko parajeetan, giza eskeleto baten arrastoak topatu dituzte. Arkeologoek aztertu ondoren, ondorioztatu dute 950-1250 urte artekoak direla eta Candelariako kulturarekin lotuta daudela. Aurkikuntza berri pozgarria izan da arkeologoentzat duela milurte inguru basamortuan bizi ziren

komunitateei buruzko informazioa dakarrelako.

Dena den, aurkikuntza egiteko moduak kezka ere eragin du, turistek eman baitzuten hezurren berri. Turisten trafikoa geroz eta handiagoa da Bilbaoko duntan eta 4x4 ibilgailuen gurpilak eragiten ari diren higaduraren ondorioz geratu da eskeletoa agerian. ●

EUROPAN GERO ETA ESKUINAGO, TRANTSIZIO EKOLOGIKOAN GERO ETA ATZERAGO



GOIURI ALBERDI ETA
AINTZIRA OÑEDERRA
ASUNEK

Ez da ezusteko handirik izan Europako hauteskundeetan, eskuin muturrak gora egin duen bitartean, berdeek orain arteko emaitzarik txarrenetakoak izan dituzte. Zentzu horretan, geroz eta gehiago nabaritu dugu trantsizio ekosozialari lotutako erabakietan ebidentzia zientifikoek baino lobbyek izango duten eragin apokaliptikoa.

Egunerokoan inongo interesik pizten ez duen lehen sektorea eztabaida politiko guztietan izendatua izan da Europako hauteskundeak iritsi direnean. Mesfidantza eragiten dute, zilegitasun gutxiarekin, hauteskunde kanpainan soilik laborantzaz hitz egiteko ausardia erakusten dutenek. Testuinguru hauetan erraz gailentzen dira km0 arrazoibideak, eta etxekoa baldin bada dena da balekoa: kalte ekologikoa, langileei ezarritako lan baldintzak, energia fosilekiko dependentzia, eta abar. Gainera, botoak errazago irabazten dira beldurraren itzalpean, "Nekazaritza Politika Bateratuko (NPB/PAC) laguntzak kenduko dizkigute", edo "gero eta neurri zorrotzagoak betearaziko dizkigute". Eskuinak beti izan du konplize beldurraren diskurtsoa.

Eta hartan geratu dira Europako hauteskundeetako emaitzak: gauzak gehiegi aldatuko ez direla dirudien arren, europarlamentariaren bostetik bat eskuin muturrekoa izango da. Europako Alderdi Popularrak osatzen duten taldeek handitu egin dute sozialdemokratakiko aldea, baina badirudi bien arteko koalizioan jarraituko dutela, gehiengo osoa izateko Renew Europe taldearen babesarekin. Beraz, aurreko legegintzaldiko argazkia errepikatuko da, nahiz eta oraingoan, Berdeek ordezkaririk galdu dituzten eta laugarren indarra den eskuin muturreko European Conservatives and Reformists Group (ECR) taldea aurreratatu zaien.

Trantsizio ekologikoa bere zentzurik gordinenean ulertzen duten Berdeek



EUROPAKO DOKUMENTAZIO ZENTROA - GRANADAKO UNIBERTSITATEA

emaitzarik txarrenetakoak izan dituzte, eta joera negazionista eta atzerakoi bati aurre egin beharrean aurkituko dira, eskuinaren eta eskuin muturraren gorakadak ingurumen-politikak zalantzan jarzea ekarriko duelako. Ez da iradokizun hipotetiko bat, Europar Batasuneko hainbat proiektu –Baserritik Mahaira estrategia edo dieta jasangarriagoak bultzatzea helburu zuen Elikadura Sistema Iraunkorren Markoa, besteak beste– nabarmen ahulduak izan dira hainbat sindikatu eta enpresek egindako lobby maniobren ondorioz. Europako Alderdi Popularrak lobbyen argudioak erraz bereganatu izan ditu trantsizio ekologikoan eragiten duten politika zehatzen aurka egiteko.

Esan dezakegu, estrategia eraginkorra aplikatu zutela lobbyek urte hasierako mobilizazioetan, traktoradek eta errepi-de mozketek hauteskundeetako emaitzetan eragina izan dute, eta aurrerantzean, eskuinak eta eskuin muturrak Europako

Parlamentuan izango duten ordezkaritzak asko erraztuko die euren interesak azkeneraino eramatea. Bitartean, Nekazaritza Politika Bateratuko dirulaguntzak etxalde tamainaren arabera banatzen jarraituko dira eta nekazaritza intentsiboa eta lehiakorragoa sustatuko da. Era berean, Next Generation funtsek soluzio faltsuak eta antzuak ekartzen jarraituko dute: trantsizio ekologikoan aurrera egiteko eredu aldaketak finantzatu ordez, laborantza industrialean kokatutako korporazioak diruztatuko dituzte.

Beraz, ez digute ezustekorik emango Europatik bultzatuko diren nekazaritza politiken nondik norakoek, ez da zehazki trantsizio ekologikoaren bidea izango, edozein izanik ere erabiliko dituzten terminoak. Hau horrela, tokian tokiko alternatiba agroekologikoak indartzeko aliantza politiko zein sozialetan sostengatzea beti bezain eta inoiz baino beharrezkoagoa izango zaigu. ●

A ZE FAUNA!

EUSKAL HERRIKO
TIGREAK

EGOITZ ALKORTA MIRANDA
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Duela gutxiak kontua da. Iberiar katamotza (*Lynx pardinus*), mundu mailako felino espezie mehatxatuenetarikoa, "galtzeko arriskuan" egotetik "kaltebera" kategoriara igaro da IUCNren Espezie Mehatxatuen Zerrenda Gorrian. Espeziea kontserbazteko egindako esfortzuek fruitua eman dute.

Garai batean Euskal Herri guztian bizi zen katamotza eta bada-kigu orain dela 200 urte inguru arte biziraun zuela hemen. Jendeak ez dakiena da, ordea, bildutako datuen arabera, hemen bizi zirenak ipar-katamotzak (*Lynx lynx*) zirela. Gaur egun Europa erdialdean eta iparraldean bizi den katamotza.

Iberiar katamotza baino dezente handiagoa da bere iparraldeko ahaidea, emeak 20 kg ingurukoak dira eta arrak 25 kg-rainokoak izan daitezke... bada zerbait "katu" batentzat! Ilaje argia du, grisaxkatik horixkarako tonuekin. Orbanak ere baditu baina ez dira iberiarrarenak bezain nabarmenak. Pintzel tanke-rako ile-motots luzeak belarrietan, eta isatsa motza punta beltzarekin. Ehiztari paregabea da eta bera baino 3-4 aldiz handiagoak diren harrapakinak ehizatzeke gai da, orkatzak, sarrioak eta baita oreinen bat ere (emeak eta kumeak bereziki). Aukera ikusiz gero, oilo, ahuntz edo ardiei ere helduko die ipar-katamotzak.

Oso pieza estimatua zuten ehiztariak, sarraski handiak egiten zituelako ar-



MARTIN MECNAROWSKI

talde edo ahuntz-taldeetan, eta saritu egiten zuten hura harrapatzen zuena. Dokumentu asko dira Euskal Herrian katamotzaren ehiza aipatzen dutenak. Euskaraz ez zeukaten arazorik animalia horri deitzeko, katamotza, baina gaztelaraz bai, ez baitzekiten nola deitu euskaraz hain izen garbia zeukanari: *tigre, tiguere, onza, leopardo, pantera...* denetik esan zioten orduko kronika eta hiztegietan.

Patziku Perurenak aurkitu zuen Goizuetako udal-kontuetan horri buruzko aipamen ederrik. 1669koak dira hauek zehazki: "*a Blasio de Çavaleta vecino de Leyça dos ducados y dos reales por haver muerto a tres animales llamados tigres que en nuestra lengua llaman catamoça*". Iztuetak kontatu zuen, 1776an Idiazabalgo artzainek Arantzazun harrapatu omen zutela "*un tigre corpulento*", 39 kg pisatu zituena. Gorbeia inguruan ere baziren katamotzak: 1762 eta 1777 artean

IPAR-KATAMOTZA

Lynx lynx

TALDEA: Ornoduna/Ugaztuna.

NEURRIA: Gorputza 80-130 cm.
Isatsa 21-24 cm.

NON BIZI DA? Basoetan gehien bat eta baso ireki eta sastrakadietan ere bai.

ZER JATEN DU? Ungulatu txikiak, erbiak, untxiak, urtxintzak, hegaztiak eta abar.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

bost katamotz ehizatu izanaren aipamenak badaude. Lizartzan, 1777ko urtarrilean bi "*leopardo*" hil omen zituzten Illarrazu mendian eta beste bat 1781ean, Antzarreta mendian. Mutrikuarrek Arnon harrapatu zuten "*tigrea*" ere katamotza izango zen. 23 kg eskas pisatu arren, sekulako sarraskiak egin omen zituen piztia "isats motzak". 1837ko zita batzuek aipatzen dute Villanañeko herritar batek "*pantera*" bat ehizatu zuela inguruko mendietan. Euskal Herriko azkena 1936an ehizatu omen zen Nafarroako Alaitz mendilerroan.

Orditik ez da katamotzik izan Euskal Herriko mendi eta basoetan... ala, bai? Azken hamarkadetan arrastoak eta behaketa zuzenak aipatu izan dira Pirinioetan, baita Euskal Herriko aldean ere. Hala ere, ezin izan dira behaketa horiek ziurtzat eman eta katamotzaren misterioak hor jarraitzen du. Garbi dagoena da katamotzak eremu zabalak behar dituela lasai bizitzeko eta Euskal Herrian gero eta urriagoak dira horrelako parajeak. Ez diegu erraza jarri gure "tigre"-ei.

Bada, dena ez dago galduta. Baliteke Pirinioetan oraindik aleren batzuk geratzea, eta iberiar katamotza penintsulan barrena zabaltzen ari da, pixkanaka gorantz eginez. Etorkezinean, zein agertuko ote da lehenago Euskal Herriko lurretan? Iberiarra ala iparraldekoa? Egin apustu! ●

ZIENTOKA IZEN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zuhaitzen eta arbolen sarobean nabil azken urte hauetan. Larrean, abaroan eta biaoan hor nabil atera ezinik. Zuhaitzei eta arbolei aparteko begirunea diedala jabetua izango zara, tarteka behinik ARGIAren Bizi Baratzea txoko honetan ibiltzen bazara. Eta azkenaldi honetan, Iñaki eta Markel lagunekin arbolen izenekin gabiltza katramilatuta. Hona hirukote polita eta bere izen kuadrilla paregabeak:

Prunus spinosa elorri beltzaren 71 izen azaldu zaizkigu: adan, an, aran baxaka, aran tximilo, aran-hori, aran-okaran, aranarbola, aranbeltza, arantza, arantza beltz, arantze, arantzondo beltz, asto-okaran, baixaran, basaadan, basahantze, basaelorriondo, basahana, basaka, basakanondo, basakaran, basarana, basarantze, basokaran, baxaansasi, baxaran, beltxaran, bildots-aran, elhorribeltz, elorrantza, elorrantzaondo, elorrantza, elorrantza beltz, elorrantza gorri, elorri, elorri-arantza, elorribeltz, elorribeltzondo, elorritze beltz, elur-arantza, eñurriatze, erro-lantz, estraka, ilhorribeltz, larrantza, larrantza, maldaan, matxakaran, maxakan, maxaran, okantximilloarbola, okaran beltz, okaran garratz, patxaran, patxaranondo, paxaonsasi, paxarandi, sabi, sasiokaran, txaran, txarriokeranondo, txerri okaran, tximbillosasi, txoriokeran, urde-aran, urri-aran, xats, xerri-aran eta xerriadan. Esaera eta atsotitz politikak ere baditu: elorri beltza lili, ardia bizi; elorri xuria lili, behia bizi; elorritik atera eta sasian sartu; elorri beltza loran, zola haustera noa.

Intsusa beltza (*Sambucus nigra subsp nigra*) da beste bat, honek ere mordoska bat badu: intxusa, intsusa, intxosa, el-



tsutsa, intsusi, lintsusa, linsusa, lintxusi, lintsusi, plausta, sabuka, sabiko, sabuko, saguka, saguko, samuka, sahuka, sauka, sauke, sauko, sauku, zamuka, zaminka, sabukaondo, sabukatze, sabukitze, sagukitze, sakuta, sahukitze, sakute, satz, txotxika, txutxika, intxusa-belar, aztunpa, kukutxa, turta, urta, txakotia, takotixe, luxintxe, plausta eta fluta arbola. Aztunpa eta fluta eta horrelako izenak bere adar hustuarekin egiten zen jostailu batenak dira, zeinekin pilotatxoak botatzen ziren. Ura ere jaurtitzen zen eta hortik Damaso Intzak bere *Naparroako Euskal Esaera Zarrak* liburuan jasotako Bortzirietako esaera: Gero ariko da aztunpa bezala negarrez.

Baso-sagarrak (*Malus sylvestris*) ere badu izenetik: sagar mina, sagar makatza, makatza, txori-sagarra, sagarrarraitza, sagarkoatze, basate, basaka, paxaka, patxaka, basasagar, sabar basa, baso-sagar, sagar basati, sagar-orpo, sagar zuhaitza, sagar arbola, sagarsastraka, sagar-sabia, sagar-ondoizko, sagar gezamin, sagar gazi, mintxagar, pintxagar eta sastraka. Bakaikun jasoa da berari buruzko esaera dotorea: beti gerra ematen etxean, sagarmina baino gaiztoago.

Esan beharrik ez dago, baina, izen saldo horrek ederki dio zenbaiteraino gureak ditugun. Eta... besteren bat ere izango dute, ezagutzen al duzu? ●

ERROAK LANDARETEGIA

FRUTA-ARBOLA, FRUITU
TTIPI ETA LANDARE MINTEGI
EKOLOGIKOA AHATSANGARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Mahaño Lanathoua 2017an hasi zen aitaren lurretan arbolak landatzen, oihan baratzea lantzeko ideiarekin. “Hasieran asmoa ez zen horretatik ekonomia bat sortzea, gure buruaskitasunerako bidean pausoak ematea baizik”, gogoratu du laborariak. Baina, landaketekin hasi zenean ohartu zen arbolak urrunetik ekarri beharra zituela, Frantziako Estatuko iparraldetik edo beste zenbait tokitatik. Orduan bururatu zitzaion, interesgarria litzatekeela hutsune hori bete eta bere mintegi ekologikoa abian jartzea. Erroak landaretegia da horren emaitza, duela urte eta erditik martxan den proiektua.

SISTEMAK LANDATZEKO GOMITA

Arbola fruitudunak, fruitu ttipiak, landare lagungarriak eta sendabelarrak ekoizten ditu Lanathouak Erroak landaretegia: “Urte guztirako fruitu ttipiak ditugu, goiztiarrak, sasoi erdikoak, bukaerakoak... baditugu klasikoak, baina baita berezigoak ere, kakiak eta horrelakoak”. Helburua urte osorako fruitu eta landareak eskaintzea da, eta aukera dutenei, landare edo arbola solteak baino, sistema osoak landatzea proposatzen die: “Arbolak, landare ttipiak, sendabelarrak... horiek elkarren ondoan jarrita sistemak



landatzea da ideia, eta ez arbola isolatuak jartzea. Erresistenteagoa izanen da beti sistema hori”.

Etxean dituen arboletatik ateratzen ditu txertoak ekoizleak, eta, momentuz, txerto eramaileak edo oinak erosi egiten ditu. Horiek txertatu eta urtebetez edo urte eta erdiz zaintzen ditu zuhaixkak ekoizleak, saldu aurretik. “Momentuz, horrela ari naiz, baina honezkerok hasi naiz nire txerto eramaileak hazitik eta hezurretik ekoizten ere: sagarrondoak, mertxikak, haranak... nahi nuke pixkanaka hori ere neroni egiten hasi, ekoizpena hastapenetik kontrolatzeko”, dio. Bertako bariatateak ere erabiltzen ditu Lanathouak, tokiko sagarrondo asko ditu, esaterako; baina bertakoak ez diren kasuan, bertara ongi egokitutako motak

ditu. “Lehenagotik landatuak nituen lursailean, eta badakit zein diren erresistenteak, tratamendurik gabe ongi funtzionatzen dutenak... horiek ugaltzen ditut”.

SALMENTA ZUZENA

Salmenta udazkenean, neguan eta udaberri hastapenean egiten du ekoizleak, “izerdia erroetan dagoenean”. Donibane Garaziko merkatuan egoten da astelehenero, eta horrez gain, etxaldean bertan ere saltzen ditu arbolak eta landareak, hitzorduen bidez. Urte eta erdiko ibilbide honetan erantzun ona jaso du proiektuak, eta Lanathouak uste du konfinamendutik hona egon dela hausnarketa kolektibo bat, eta badela jendea, pixkanaka, geroz eta autonomoago izateko bidea egiten ari dena.

Landaretegia hurbiltzeko gomita luzatu du laborariak, proiektua ezagutzeko eta bere lan egiteko modua ikusteko. “Landareen zaintza erraza zait, baina zailena, orain, lurrari bueltan ematea da. Materia organikoa, fermentazioa eta mikroorganismoak lortzea. Azkenean, arborek ainitz xurgatzen diote lurrari, eta lurra ez pobretzeko konpentsatu beharra dut. Hori da, niretzat, momentu honetan zailena eta interesgarriena”, amaitu du. ●

HEMEN DAGO NAFARROA

Reyno Gourmet

NAFAR KALITATEA

Zigilu honen atzean, zapora on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA

ReynoGourmet.com

FREE JAZZ

**BELTZETAN
BELTZENA**

1959. urtea mugarri izan zen jazzaren bilakaeran: Miles Davisek *A Kind Of Blue* grabatu zuen martxoan eta apirillean; disko horretan parte hartu zuen John Coltranek *Giant Steps* plazaratu zuen maiatzean; eta, azkenik, Ornette Colemanek *The Shape Of Jazz To Come* argitaratu zuen, hori ere maiatzean. Hirurek inflexio puntu bat osatzen dute: lehenengo biek aurretik nagusitutako bebop eta hardbop azpigeneroen heriotza iragarri zuten, eta hirugarrenak laster etortzear ziren soinu berri eta transgresoreen oinarriak finkatu zituen.

 JULEN AZPITARTE

Obra monumentalak ez ezik, gehiegi zuritutako jazzari loturiko erantzunak ere izan ziren, batez ere Colemanena, zeinak Afrikako musikei begiratzen dien, hausturaren bidez; hots, disko hori dela medio, free jazz azpigeneroaren zimenduak eraiki zituen Colemanek. Madrilgo Sormenezko Musika Goi Mailako Zentroan Jazz Historiako irakasle Mariano Peyrou (Buenos Aires, Argentina, 1970) hain justu ere hiru disko horietatik abiatu da oraintsu Anagramak plazaratutako *Free jazz. La música más negra del mundo* (Free jazz. Munduko musikariek beltzena) saiakeran abangoardiako jazz estilo horren nondik norakoak azaltzeko.

Argentinarraren aburuz, estilo bat baino, free jazz ikuspegi musikal bat da eta bertan bi estetika uztartzen dira: abangoardiak eta Afrikako kulturak, alderdi kontrajarriak erakutsi arren. Peyrouren esanetan, aurre-

ko jazz-musikariak saiatzen baziren beren lana ez zela gauza primitiboa erakusten, instintiboa eta irrazionala, basatiena, abangoardiek gaitzetsi egiten dituzte instituzioak eta Europa, eta, hain zuzen ere, *primitibotasunean* –fauvismoak, espresionismoak edo kubismoak nola-, instintuan eta irrazionaltasunean –kontzientzia-fluxuaren teknika literarioan edo lotura libreko ikerketa surrealistetan bezalaxe– bilatzen dute. “Free jazzak inkontzienteko prozesuak bideratzeko modu bat ere ematen duela uler daiteke”, dio.

Horiek horrela, free jazz gizakia- ren alderdi intuitiboari eta espiritu- lari lotzen ahalegintzen da, eta hortik hazten da musika sortzeko. Ornette Colemanen taldean jotzen zuen kontrabaxista Charlie Hadenek esana: “Musikan benetan inplikaturaz zaude- nean, pentsamenduaren prozesuak ez du lekurik. (...) Pentsatzen hasten zarenean, musika eten egiten da”.



Hala, musikari berriek –hasieran *New Thing* (Gauza berria) izenez izendatu zuten free jazz–, Afrikan paratu zuten sen sortzailea, beren arbasoen kulturetan sustraitutako musiken ezaugarriak bereganatzeko, eta, era berean, jazza Europako tradizioko elementuetatik askatzeko; hau da, melodietatik, soloetatik eta armonietatik urruntzeko, arreta soinuaren eritmoan jartzeko asmoz. Payrou: “Free jazzean, sekzio erritmikoak solistek beste laguntzen dute tinbre-aniztasunean, ehunduretan, dinamiketan, soinuaren moldaketan, energia dosifikatzen eta atmosferak sortzen. Eta hori da garrantzitsuena estilo horretan, eta ez melodiak, ezta melodia horietaz arduratzen direnak ere”.

Halaber, tradizio afrikarreko zertzeladen artean hauexek azaleratu ziren: egituren malgutasuna, desordena, bat-bateko interakzioa, hierarkien suntsipena, sormen kolektiboa, disonantziak, afinazio-jolasak, nota luzeak edo soinuarekiko interesa.

Horiek horrela, free jazzak estiloaren loraldi berri, aske eta efimeroa ekarri zuen, bere itzala hamaika estilotan islatzen den arren, baita egun ere.

Berrikuntza kaotiko horiek guztiek puristen gaitzespena jaso zuten; free jazzak *establishment*-arekiko eta, ondorioz, kapitalismoarekiko agertu zuen jarrera kritikoak ez zien batere lagundu musikari beltz ipurterre eta politizatuei. Cecil Taylor musikariak zera dio: “Muturreko ironia izan zen sasoi hartan egiten ari ginen musikari buruzko artikulua agertu izana *Down Beat* aldizkarian. Argitaratu eta gutxira, nik platerak garbitzen egiten nuen lan, baina ordurako nik banekien zergatik garbitzen nituen platerak”.

Peyrouren iritziz, free jazzak ez da batere erakargarria ikus-entzuleen gehien-goarentzat, dituen ezaugarriak tarteko, nagusiki, zintzotasuna, introspektzioa eta laztura. Onarpen eskas horren harira, oso esanguratsua da Taylorren baieztapena: “Artista baten lehen ardura norberarekin komunikatzea da”.

NAZIONALISMO BELTZA

Free jazzaren hastapena beltzen eskubide zibilen aldeko borrokarekin lotzen da, ezinbestean, 1960ko hamarkadan, afroamerikarren atsekabea nabarmen hedatu baitzen, hala nola, Martin Luther King eta Malcolm X pentsalari eta liderren eskutik. Dena dela, aldarrikapen horiek XIX. mende amaieran piztu ziren, geroa areagotzeko. Mugimendu hori erabat

“Free jazzean, sekzio erritmikoak solistek beste laguntzen dute; hori da garrantzitsuena estilo horretan, eta ez melodia”

Mariano Peyrou

gauzatu zen 1960ko urteetan gertatutako deskolonizazioarekin batera, zeina nazioarteko fenomeno bilakatu zen, eta askapenerako prozesu horrek, halaber, bat egin zuen free jazzaren loraldiarekin. Malcolm Xren heriotzak, gainera, integrazioa aldarrikatzen zuen mugimenduaren alderdi “ahularen” aurkako erreakzioa ere eragin zuen, Stokely Carmichael aktibistak jarrera erradikalagoen aldeko aldarria egin zuenean, 1966an, bai eta *Black Power* terminoa zabaldu ere; urte berean, Pantera Beltzen Alderdia ere eratu zen. Horrek guztiak nazionalismo beltza areagotu zuen, eta agerian jarri zuen afrozentrismoa. “Ohikoa da free

jazz musikariak balio zuriekiko beren gaitzespena agertzen ikustea, eta beren identitate kolektiboa adieraztea tuniken, turbanteen, txanoen, dashikis-en (batez ere Mendebaldeko Afrikan erabiltzen den jantzi koloretsua), eta abarren bidez”, dio Peyrouk.

Haatik, free jazzaren aurretik hainbat jazz musikari agertu zituzten beren ikuspegi eta jarrera politikoak; esaterako, 1960an, Max Roachek *We Insist! Max Roach's Freedom Now Suite* diskoa argitaratu zuen, zeinetan oihu askatzailea grabazioaren azaletik nabarmentzen den. Lan horretan, halaber, laster loratuko zen free jazzaren trazak dituzten doinuak entzun daitezke, besteak beste, inprobisazio kolektiboen bitartez. Horren erakusle, *Tears for Johannesburg*.

Hala, oso ohikoa zen free jazz musikariak mitinetan eta elkartetan parte hartzen edo mugimenduaren aldeko kontzertuak ematen ikustea. Haatik, Peyrouren aburuz, musikari horien dimentsio politikoa ez da islatzen esaten edo egiten duten horretan, baizik eta haizatzen duten soinuaren: “Tenkatua, biolentoa, merkantilizazioa gaitzesten du (abestu daitezkeen melodiarik gabe, ehundura larkar batekin eta irratiek onartu ezin zuten iraupenarekin), eta, beraz, kapitalismoa, publiko handiaren gustua gaitzesten ditu. (...) Free jazzak, hartara, ez du 'musikaliki onartzen' jazzari emandako posizioa, eta nolabait esatearren, gatazka adierazten du, bertan paratzen du begirada, eta soinu bat ematen du, ezaugarri hauekin: Afrika, zuriaren eta beltzaren arteko topaketa odoltsua, sufrimendua, etsipena, itxaropena, norberaren onespina, frustrazioa, amorrua eta gorrotoa”.

Horiek horrela, pentsa daiteke free jazzak bere testuinguruan baino ezin dela ulertu, eta *Black Power* mugimendua ahuldu zenean, musika ere makaldu egin zela. Ondorioz, askoren aburuz, hizkuntza musikal hori agortu egin zen. Horrekin batera, komunitate beltzak bizkarra eman zion estetika berriari: musika intelektualtzat hartu zuten afroamerikarrek, publiko gehiena zuria eta unibertsitariora baitzen, eta Afrikako tradizioetan oinarrituta musika izanagatik ere musika beltzaren esentziaren kontrakotzat jo zuten.


Testuinguru politikoa eta historikoa gorabehera, free jazzak musika urratzailea eta eraldatzailea izan zen. Peyrouren hitzetan, “entzuterakoan, gauzak gertatzen zaizkigu, eta esperientzia horretatik energia jakin bat erauzi dezakegu. Bere energia iraultzailea eta espirituala da”. ●

GINARRIZKO DISKOGRAFIA BAT

- Ornette Coleman – *The Shape of Jazz to Come* (Atlantic, 1959)
- Ornette Coleman Double Quartet - *Free Jazz A Collective Improvisation* (Atlantic, 1961)
- Albert Ayler – *Spiritual Unity* (ESP, 1964)
- Eric Dolphy – *Out To Lunch!* (Blue Note, 1964)
- John Coltrane - *A Love Supreme* (Impulse 1965)
- Cecil Taylor – *Unit Structures* (Blue Note 1966)
- John Coltrane – *Ascension* (Impulse, 1966)
- Archie Shepp – *The Magic of Ju-Ju* (Impulse, 1967)
- Pharoah Sanders – *Karma* (Impulse, 1969)
- Alice Coltrane - *Journey in Satchidananda* (Impulse, 1971)



Hitz gezidunak

TXANOAK BEHARTSU, POBRE	APAILATU BI ERROMATAR ZENBAKIZ	... GAINETIK, OKOREN GAINEAN	 ENAUT AGIRREBENTZIA		GARAITU LORE HORIAK DITUEN ZUHAITZA	NEURRIZ GAINERO BELDURRA UGAZTUN KARRASKARI	EGIPTOKO ERREGE PERTSO- NAIAREN ABIZENA
PERTO- NAIAREN IZENA UTIKAN!					NAFARROAKO HERRIA ALTUA, GARAIA		
	BEGIRA ITOLARRI		ZEREZKO ATZIZKIA BURUKO ILEEN MULTZO	GAI KOIPETSUA IRMO EZARRI			
ESTANKURU, DESENKUSA AGIRIA					GALAIA JAN, BAZKATU		
		NAFARROAKO HERRIA ERORKA				AZKEN ETA HIRUGARREN BOKALAK NAFARROAKO IBAIA	
NAHIKO LABUR	ZUHAIXKA ABARTUA ANTZINAKO KALKULA- GAILU		MALTAKO HERRITAR BRUSA				OINETAKOA
					HARREK JO HAMABI HILABETE		
BIGARREN LETRAREN IZENA SASI		BETEA KANTITATEA ADIERAZTEKO ATZIZKIA				NAFARROAKO HERRIA ...-APA, HITZEZ HITZ	
			TUTIK EGIPTOKO JAINKOA				KILOA SUARI DARIONA
AULKIA GORAI PAMEN, LAUDAMEN				KOBREZKO ONTZI ROENTGEN			
					BILOA		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

9				5	4			
	4	2	7	3	6			9
3		5	4				8	
7	3		6			8		2
		1			2			6
	2						4	
	1			2	6	9		
		2			7	1		8
4	6			1	8	5		7

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Izan ezik.
- Moztu.
- Abereen larruko parasito.
- Apika, agian.
- Jaurtiketa.

EBAZPENAK

7	2	7	1	8	5	6	9	4
9	5	2	3	4	7	1	6	8
8	1	7	5	2	6	9	3	4
6	2	8	9	7	1	3	4	5
5	4	1	8	3	2	7	9	6
7	3	9	6	5	4	8	1	2
3	7	5	4	6	9	2	8	1
1	8	4	2	7	3	6	5	9
2	9	6	1	8	5	4	7	3

5x5:

V	A	E	L	I	E	R	Z	A	R	V	O	R	G
I	K	I	P	T	V	R	I	R	V	K	V	K	
K		K	T	I	K	M	U	R	A	H	V	L	
S		V	A	V	U	S	A	V	O	B	E		
O		A	R	H	O	X	T	R	U	B	V	L	
		R	V	A	L	M	A	V	E	T	O		
I		O	A	R	O	D	O	R	V	K	T	A	
O		J	V	M	V	A	K	I	V	Z	I	V	
V		N	I	U	G	Z	O	S	O	T	U		
R		V	A	R					E	R	O		
V		S	O	S	M				O	R	X	L	
F		F	X						P	T			



Plaza zail bat

✍ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 RODRIGO JIMÉNEZ

Ea posible den euskara festaren erdigunera ekartzea. Apustu arriskutsu bezain pozgarriak izan dira aurtengo Gaztelu plazako kontzertuak. Arrakasta itzela izan da orain arte Izaro, Chill Mafia eta Zetak taldeekin. Laugarren gauerako baina, ez dakit bat baino gehiago nekearen nekez ez ote den arrastaka heldu.

Plaza zaila da sanferminetakoa. Ustezko zortzi eguneko delirio eta frene-si kolektibo horretan Gorka Urbizuren kontzertuak sentimendu kontrajarriak eragin ditu. Lasaiegia delakoan, beranduegi, edo *bajona* eragingo duena. Nolanahi ere, zale ugari ordubata jotzear denerako, zain, zeren zain erabaki gabe.

Bandakideen ostean oholtzaratu da protagonista eta abiatu da kontzertua. Ez naiz ni inola ere aditua musikan, baina

ausartuko naiz esaten gozada bat dela. Azken aldian estimulu ugariko proposamenetara ohitu gara, Urbizuk dakarrenak, berriz, sinplera jotzen du: melodiak, ahots garbia, instrumentu bakoitzaren detaileak, isilune laburrak eta oihal zuri batean argitzen diren koloreak.

Zalantzetako beste bat zen ea lehen albumeko kantak bakarrik joko zituen. Edo bestera esanda, Berri-ren abestiren bat eskainiko zigun ala ez. Eta bai, baina ez bakarrik. Lekunberrikoak keinu eta omenaldi egin die haren ibilbideko proiektu ugariri. Izan ditugu tartekatuarik Peiremans, Katamalo, eta, nola ez, Berri Txarrak Gorka Urbizuren aho-tsean. Eta, gainera, *bonus track* eder batzuk ere bai, oraindik ere kontzertua ikusi ez duenik baldin bada, aipatuko ez ditudanak. Egia da era berean, askok

GORKA URBIZU

NOIZ: uztailaren 9an

NON: Gaztelu plazan (Iruñea)

pentsatu dugula *Hasiera Bat* diskoaren kantuetako batzuk izan zitezkeela aurreko proiektuetan baztertuta geratu zirenak.


Baina hain justu askorentzat horixe izango da desilusia. Egongo ziren zerbaiten esperoan, ez den horren espektatibaz. Emanaldia bukatu aurretik alde egin dute gutxi batzuek. Beste batzuen malkoak ere ikusi ditugu. Bikote bat (baino gehiago) musuka. Edari hornitzaile ibiltariak –eskerrik beroenak ere horiei, beren lata hotzengatik–. Entzuleak sorbaldetatik helduta, kantuan. Gustura jotzen ari den talde bat.

Agian ez da izan kontzertu jendetsue-na, ez eta dantzagarriena ere. Baina izan da, iruindarrok esaten dugun moduan, *momentiko* bat. Eta horrek ere balio du. Besterik ez. ●



LIBURUA

Arrats dibertigarria



JORGE FERNÁNDEZ MAJORAL

ARRATS ZAPO BAT MAITE MUTUBERRIA

PAMIELA, 2024

XABIER ETXANIZ ERLE

Arrats arrunt bat zen. Zapoarentzat". Arrats hori da Maite Mutuberría album honetan kontatzen diguna. Oso testu gutxi du liburuak, eta irudiek ederki kontatzen digute istorioaren nondik norakoa.

Hasieratik ikus dezakegu ilustrazioetan zapo handi eta lasaia, oso elementu gutxiarekin ongi definitzen dena; Mutuberría, esaterako, zapoaren begiradarekin jolasten du irakurlearen irribarrera sorrarazteko, zapoaren asmoez eta jokabideaz konturatu gaitezen. Zapo geldidago, eltxoak dio "azzzpertuta" dagoela zapoa, baina berehala konturatu gara zapoak molestatzen duen eltxoa jaten duela, bai eta harrapaketan aritzeko probokatzen duen barraskiloa, edo ondoren datozen inurria, armiar-

ma... harik eta matxinsaltoarekin topogin arte, horrek lortzen baitu zapo tarte luze-luze-luze batez ez aspertzea.

Testu gutxiko albuma dela esan dugu aurretik, eta testuan aipagarriak dira onomatopeiak eta hitz jokoak. Eltxoak "aizzzu, ezetzzz harrapatuzzz" dioen bitartean barraskilok "aaaiizuuu, eeezeetz haaarraap..." bakarrik ahoska dezake zapoak irentsi aurretik, edo matxinsaltoak "aizu-aizu-aizu, ezetz-ezetz-ezetz harrapatu" xuxurlatuko dio segurtasun handiz. Eta batek xuxurlatzen duen bitartean, beste bat oihuka, zezelka edo deiadarka arituko da, zapoaren arrats arruntean.

Liburu dibertigarria da, haur txikiei behin eta berriro errepikatze modukoa. Irudiekin eta testuarekin jolasteko

aproposa, irakurlearengan oso sentsazio polita uzten duena amaieran. Eta ez bakarrik irakurlearengan, baita Compostela sariko epaimahaikideengan ere, iazko sarian finalista izan baitzen *Arrats zapo bat*, eta horren ondorioz euskaraz gain beste hainbat hizkuntzatan ere argitaratu da liburuak -italieraz, portugesez, galegoz, gaztelaniaz eta katalaneraz-.

Beraz, oso liburu gomendagarria da Maite Mutuberríaren azken lana, bere sinpletasunean, detaile txikietan -babes orrietan, adibidez-, informazio asko ematen duena; hitzekin etengabe jolasten duena; eta biekin, irudi eta testuekin, oso narrazio simple eta dibertigarria lortzen duena irakurlearen gozamenerako. ●



MUSIKA

Lagun onekin, orduak labur

XALBA RAMIREZ

Punka. Punka bueltan da, edo hobe esanda, ez da inoiz joan. Lekitxotik (eta ez Lekeitiotik) datoz Zikinekoak, Mendeku Diskak-ekin argitaratu berri duten *Bala Galdua Zure Buru Galduan* elegantearekin.

“Eixu Zeuk” filosofia. Hori da oinarria eta helburua. “Hartu aurrea, ipini gogua ta maitasuna”. Ez dago besterik. Auto-gestioak, garai batean, beste aukerarik ez zuenarentzat alternatiba zirudien. Disketxe batek ez bazuen zure lana argitaratzen, zeurea egiten zenuen. Egun, Euskal Herriko disketxeen ekoizpena hutsaren urrena da, eta erdi manager, eta erdi disketxe formula da gailentzen dena. Kopien erdia ordaindu, eta kontzertuen %20 jaso. Erdipurdiko tratua.

Horregatik, kalkuluez haratago, oinarritzko filosofia bat da Eixu Zuk Zeuk edo DIY. Eta autolaguntza liburuetatik haratago, garapen pertsonalaren ideologia neoliberalatik urrun, erdigunean ez dago norbanakoa, kolektiboa baizik. Eixue Zeuk da kontsigna. Elkartu, partekatu, saretu, irabazi.

Zikin da Euskal Herriko lurrazpiko eszenako talde maitatuenetako bat. Euskal Herriko eta Europako aretoetako zurrumbilo eta lurrikara. Zuzeneko azkarrak dira, eta indarra banatzen dute hor. Baina jotzen ez duten gauetan ere hor topatuko dituzu taldekideak. Horrek josten du sarea. Zenbat musikari dau-den, soilik haien kontzertuetan topatu ditzakezunak!

Diskoa mundiala da. *Zementua Armo-setan* lehen lanak sei abesti zituen eta 9 minutu eta 19 segundo. *Bala Galdua Zure*



Buru Galduan-ek, berriz, zortzi kanta eta 15 minutu eta 14 segundo. Ona eta laburra, bi aldiz ona, esaten da gazteleraz. Eta bestela esanda ere, adiskide onekin, orduak labur. Azkarra da ez duelako ezer errepikatzen, eta horrela, badirudi, nahigabe ere, mezu zaharra errepikatzen dela: ez dago etorkizunik, orain da ueña!

Lohija kantan ateratzen da argi pixka bat gehiago rockandrolleo eta akordeen koloreekin –*tatxerismoaz* hitz egin daiteke agian?-. Baina disko osoan ez da ildo galtzen: kantu azkarrak, zuzenak, biziak eta, batez ere, azkarrak, zuzenak eta biziak.



BALA GALDUA ZURE BURU GALDUAN

ZIKIN

MENDEKU DISKAK, 2024

Punk berria etiketa erabiltzea? Tira, batetik, etiketak prentsarako eta jaialdiarako markoak dira batez ere, beraz eztabaida ez da interesgarriena. Bestetik, *berria* erabiltzeak dirudi orain arte ez dela horrelakorik egin eta halako puntx gehigarri bat eman nahi zaiola. Bestela zer, ez al da punkik egin orain arte? “Gusurre”, Lekitxon esango zuten legez.

Baina *Punka* etiketari gehitzea punk-hardcore, post-punk edo punk-zerbait horrek adierazten du intuizio bat: hau ez dagoela garaiz kanpo, ez dela *revival*, ez dela, zaharra.

Artze zaharrak zioen eran, tradizioa da zaharrik zaharrena berri egitea. Punkaren tradizioa bizi delako da punk berria. Punka beti izango delako berria, sistemak ezin duelako bere egin. Eztiz eta posez margotu daiteke erritmo bat. Baina lurrazpiak badaki nor den nor. Eta kontzesiorik egin gabe bizi da: “Zapalduen anai-arrebak gara, berdin jaku nondik datozen”. ●

Turismoaren kontrako tradizio baten jatorri historikoaz

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Azkenaldiko polemikak behar-tzen nau artikulu hau idaztera, gaur egun tradizioa den zer-baiten jatorriari erreparatzea lagungarria izaten baita, ia beti, argi pixka bat edukitzeko. Eta kontsentsu historiko sendo xamarra daukagu, gainera: uda batez eta nahiko ezustean hasi zen dena, Behe Bidasoko herri batean –guztiok uler dezagun, Metropoli Kantauriarreko XD20280 barrutian–. Zehazki, 2024ko uztailean sare sozial batean argitaratutako mezu laburra izan zen abiapuntua. Osorik erreproduzituko dugu, bere balio historikoa dela-eta: “Turistei begiratu. Goitik behera. Kontsumitu beraien piura. Atera argazkiak beraiei, beraien umeei. Galdetu zer ari diren jaten. Galdetu gauza gehiago. Galdetu dena. Ahal bada, builaka eta belarri ondoan. Jazarri itzazu kalean. Bertakoak balira bezala sentitzen diren arte”.

Mezuaren asmoei buruzko eztabaida akademiko luzea izan den arren, ikerketa dokumentatuenek argi utzi dute egilearen xedea ez zela matxinadarako deia

egitea, garai hartako kapitalismo turistikoa eraginak ironikoki salatzea baizik. Baina 2020ko hamarkadan ohikoa zen moduan, testua literalki ulertu zuten askok eta askok. Eta ekintzara pasa ziren. Turistak jazartzera, alegia. Gainera, ordura arteko protesta-metodo antzuen aldean, turisten kontra turisten ohiko jokabideak arma gisa erabiltzeak indar-korrelazioa aldatu zuen. Ondorengo urteetako datuei erreparatzea besterik ez dago, zera baieztatzeko: Behe Bidasoan lehenbizi, eta Euskal Herri osoan gero –alegia, gaurko Metropoli Kantauriarreko AΩ-007 federazioan–, bidaia komertzialen sektorea gainbehera hasi zela.

Lehendabiziko garaipenak ikusirik, herritar batzuk –gerora *Estanpalari* izenez ezagutuko zirenak– eskala baxuko indarkeria erabiltzen ere hasi ziren, desturistikazioa azkartu nahian. Eta horrela hedatu zen autore-pintxoak turisten aurpegira distantzia oso laburretik jaurtitzeko praktika.

Baina, paradoxikoa badirudi ere, ekin-tza horietan bere negozioa berrasmatze-

ko zirrikitu bat aurkitu zuen industria turistikoa. *Estanpalari*-ak kontratatu zituzten, baita turistei goi-mailako sukaldaritzaren inpaktua jasateko “esperientzia” saldu ere –“*You don't know what Basque flavour is until it slaps you in the face*”, zioen garaiko iragarki batek–. Eta ondorioz, turismo gastronomikoak lurralde hauetan inoiz ezagutu diren plusbalio handienak eman zituen 2040ko hamarkadan. Gero, jakina denez, sistema kapitalistaren kolapsoak mota horretako jarduerak existitzeko arrazoa desager-rarazi zuen: esplotazioaren eta etekinaren ordez, gaur egun nagusi den berdintasunaren eta arteen gailentasunean paradigma nagusitu zen. Baina autore-pintxoaren estanzioa faziolak bizirautea lortu zuen, herri-kulturaren parte gisa. Hori da beraz, labor-labor azalduta, gaur arte Metropoli Kantauriarreko zenbait lekutan udan egiten diren *Estanpalari*-en desfileen jatorri historikoa.

Eta bidean hainbeste gorabehera izan direla jakinik, ez al da harrigarria nola dabilzan gure bizilagun asko, XXII. mendearen amaiera honetan, *Estanpalari*-en desfileetan post-gizakien parte hartzea eragotzi nahian? Haien gorputzeko ehun sintetikoak eta haien adimen konputazionala ez omen dira bateragarriak jatorrizko *Estanpalari*-ekin, hauek pertsona osoki organikoak zirenez. A ze astakeria. Ozen esan behar da, jaun, andre eta androideok: biztanleriaren %52ari bizkarraren ematen dioten jarrerak ez dira onargarriak bizi dugun munduan. Bestela, zer izango da hurrengoa? Berriz ere artalde turistikoa gure kaleetan barrena ikustea? Soldatapeko lanaren itzulera? Pentsatu nahi nuke gai garela oraindik zerbait hobea egiteko, gure tradizioak sortu diren historiaren garai ilun haietan baino. ●



Kamiseta **17 €**

Poltsa **10 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.

EL KARRIZKETA

BAT

Erakusketa
2024-06-08
San Telmo Museoa

CHILLIDA

ETA ARTEAK



EDUARDO
CHILLIDA
100 URTE

Antolatzailea:

STM
San Telmo Museoa



DX
donostia
kultura

Erakunde babesleak:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SALA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lirioetza, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**ETORKIZUNA
ORAIN**

1950-1970

www.santelmomuseoa.eus